



ARGIA



URDAIBAI *Guggenheim ereduaren jomugan*

24-28. orriak

2.756 | 2021 / 11 / 28 | 3,90 €




**Karbono merkatua,
kutsatzen segitzeko
Glasgowko amarrua**

12 | INGURUMENA



**Santi Cobos presoaren
bizipenak 'Txori
urdinak' liburuan**

30 | GIZARTEA



LARRUN #268
Buruko osasuna



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI
Garbiñe Larrea

248 orrialde

25€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

**txikitik
eragiten!**



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik 08:00etatik 15:00etara
(beste ordutegiak errez kontsultatu).

ARGIA BIZI BARATZEA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | SONIA GONZALEZ
- 21 | MIKEL OTERO
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | IÑAKI MURUA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: MIREN ITZIAR CASTRO
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

30 | KARTZELARI BURUZKO LIBURUA

Santi Cobos preso sozialaren bizipenetan oinarrituta, *Txori urdinak* liburua kaleratu berri du Zigor Olabarriak ARGIArekin. Jon Tornerrek elkarrizketatu du liburuaren egilea eta kartzelari begira jarri dira, gizartearen islada ikusteko bertan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Karbono merkatuak adostu dituzte Glasgow, sistemak bere horretan segitzeko gisan

Jenofa Berhokoirigoin

14 | JENDEAK | OIHANE IRAGUEN

“Askatasun esparrua da soinua”

Miren Artetxe

24 | GIZARTEA | GUGGENHEIM URDAIBAI

Azpiegituraz azpiegitura, porlanezko kultura

Unai Brea

34 | INAZIOARTEA | SOSH

Herri bat gerraren eta bakearen artean

Lilit Shahverdyan

38 | EUSKARA | EUSKALDUNON EGUNKARIA

Sorreratik itxierara, gizarte zibila oinarri duen kontakizun bat

Urko Apaolaza

44 | KULTURA

Ni-tik zu-rako jauzia, Tupustean

Amaia Lekunberri

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Eskubidea salgai

Kapitalismo espekulatiboak gurean nonbait badu babesleku historikorik, hori Lapurdiko kostalde da. Turismoaren hegalpean hamarkadaz hamarkada hazitako ereduak panorama gordina marraztu du: Ipar Euskal Herriko ia 200.000 etxebizitzetatik 6.000 eta 7.000 inguru dira urte osoan turismora bideraturik, eta beste ia 46.000 bizitoki izateari utzita bigarren etxebizitza dira. Horri gehitu, 12.000 etxetan ez dela inor bizi. Etxe batzuk hustu, gainerakoen prezioa puztu –Miarritzen 6.489 euro balio ditu metro koadro batek–. Euskal Herriko beste txoko askotara ere hedatu den logika simple bezain makur horretatik desertatzeko garaia badela aldarrikatu dute Baionan larunbatean 8.000 lagunek.

 SARAH WITT  AXIER LOPEZ





Autodefentsa antolatzeke deia egin du Euskal Herriko Mugimendu Feministak

ARGIA / LEIRE ZAPIAIN - EL SALTO HORDAGO

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren bueltan, Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 25erako antolatutako mobilizazioetarako lelo eta aldarrikapenak adostu ditu: Gaurkoan "indarkeria matxistarik gabeko bizitzak orain!" diogu eta autodefentsa feminista antolatu baten aldeko aldarria berharitzen dugu gure bizitzak defendatzeko.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak hiriburuetan mobilizazioak antolatu ditu egun horretan. "Emakume* izate hutsagatik egunero pairatzen ditugun indarkeria anizkoitzik gabeko bizitza askeen alde" aterako dira kalera. Gogorazi dute aurten ofizialki bost emakume hil dituztela Euskal Herrian, eta azken urtean emakumeek jasandako indarkeria "izugarria" izan dela: "Ehunka eta ehunka dira ere, LGTBIQ+ kolektiboaren kontrako eraso, gorroto diskurtso eta sexu orientazioagatik zein genero identitateagatik ematen diren bazterketak. Noiz arte?", galdetu dute.

Zentzu horretan, erakunde eta eragileei exijitu diete emakumeek indar-

keria matxistarik gabe bizi ahal izateko lan egin dezatela, "gure eskubidea baita", eta eskatu diete "mozorroturiko" adierazpen instituzionaletatik haragoko konpromisoak hartzeko: "Ez dugu benetako neurri eraginkorrik eta aurrekonturik gabeko berdintasun politika hutsalik onartuko, ezta zerbitzu publikoen prekarizaziorik ere".

Erakundeei eskatu diete "mozorroturiko" adierazpen instituzionaletatik haragoko konpromisoak hartzeko

Batzuen pasibitatearen aurrean, ekintzarako asmo irmoa ere erakutsi du mugimendu feministak, eta autodefentsaren eta "boteretze kolektiboaren" alde egin du: "Nazkatu gara beldurra izateaz".

INDARKERIA MATXISTA DATUTAN

Europar Batasuneko emakumeen he- ren batek indarkeria fisiko edo sexuala pairatu du, eta %70ak jazarpen sexuala lantokian. Frantziar Estatuan, bi egun- ean behin emakume bat akabatzen du bere bikotekideak edo bikotekide ohiak; Alemanian, emakume bat indarkeria do- mestikoaren biktima da orduro. Bost orduro emakume bat bortxatzen dute Espainiako Estatuan; Grezian, berriz, 14 emakume egunero. EAEn, Emakunderen kalkuluen arabera, 4.177 emakume izan ziren gizonen indarkeriaren biktima 2020an. Europar Batasunean 50 emakume hiltzen dituzte zenbait gizonen astero. Eta hau larrialdiaren ageriko zatia besterik ez da, emakumeen aurkako indarkeria gehiena ez baita salatzen.

EBk giza eskubideen, justiziaren eta askatasunaren eredutzat du bere bu- rua; argi dago indarkeria matxista ez dela irizpide ebaluazio horretan. Horren adierazgarri da EBk estatu kideei gaitz sozial honekiko konpromiso errealik ez eskatzea. Izan ere, Europa mailan, Is- tanbulgo Hitzarmena da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko le- gezko tresna nagusia, baina Bulgariak, Txekiak, Eslobakiak, Letoniak, Lituaniak eta Hungariak ez dute berretsi, eta Po- loniak hitzarmenetik irteteko mehatxu- pean ditu herritarrak. Arazoaren harira, Europako Parlamentuak bi txosten gako adostu ditu azken hilabeteotan: batak proposatzen du genero indarkeria de- litu-eremu berri gisa jasotzeko EBren Funtzionamenduari Buruzko Tratatu- ren 83(1). artikuluan, eta besteak, indar- keria domestikoko kasuetan, kustodia eskubideak emakume eta haurren- gan duen eragina aztertzen du. Aurrerapau- so garrantzitsutzat har ditzakegu. Lehe- nengoaren bidez, generoan oinarrituta- ko indarkeria euroliditutzat onartzeko eskaera egin du Parlamentuak. Bigarren txostenean, argi eta garbi adierazi du Parlamentuak: indarkeria matxista zain- tza partekatuekin bateraezina da. ●




Hizkuntza literarioa



ARITZ GALARRAGA

Hasieran, hizkuntza bat baino ez zen. Agota Kristofek dio, *Analfabetoa idazle* liburuan. Objektuak, gauzak, sentimenduak, koloreak, ametsak, gutunak, liburuak, egunkariak hizkuntza horretan ziren, hungarieraz. Kontua da, hogeita bat urterekin, Suitzara iristen dela, frantsesez hitz egiten den hiri batera iritsi ere, eta zeharo arrotza zaion hizkuntza bati aurre egin behar diola. “Orduantxe hasten da hizkuntza hori menderatzeko nire borroka, bizi guztian mantenduko dudana borroka luze eta amorratua. Badira hogeita hamar urte pasa frantsesez hitz egiten dudala, badira hogeita urte frantsesez idazten dudala, baina oraindik ere ez dut ondo menderatzen”. Horregatik esaten zuen hizkuntza frantsesa ere hizkuntza etsai bat dela. Baina bada beste arrazoi bat, eta larriena da, gainera: “hizkuntza hori nire ama-hizkuntza hiltzen ari da”.

Kontua da, hogeita bost urterekin, neroni ere nire ez zen leku batera iritsi nintzela, eta zeharo ez baina pixka batean arrotza zitzaidan hizkuntza bati aurre egin behar izan niola, ondotxo ezagutzen nuen beste hizkuntza baten laguntzarekin. Kristofek baino abiapuntu hobea, beraz. Denborarekin, gainera, gutxiasko ezagutzen ditudan hizkuntza horiek ez dira etsaitu, baina joan dira egiten beren lekua, bultzatzen ondokoa, kokatzen hala-hola. Eta katalana bilakatu bada etxeko hizkuntza, gaztelania eta frantsesa kulturakoak, euskara bilakatu da nire hizkuntza literarioa. Irakurri egiten dut –euskaratutako literatura, bikaina–, baina batez ere idatzi –nahiz, panorama ikusita, gogoa ematen duen beste hizkuntza batean hasteko–. Paradoxikoa ere bada, literaturarik apenas izan duen hizkuntza bat, hizkuntza literario bilakatzea. Etxetik kanpo ia, beraz, kulturatik aparte antzean, hizkuntza literario izatera mugatu da niretzat euskara. Ematen du gauza gutxi dela, baina literatura bizi duenarentzat, sinetsidazue, ematen duena baino puska gehiago da. ●



30 urte, 90 herri...
BIDEA ZABALTZEN

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA



EKONOMIA

Erreforma soka apurtu



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Lan merkatuaren eta pentsio sistema-
ren erreformak elkarlotzea logikoa
da enpleguan oinarritzen den sistema
publikoa dugun heinean. Batera egitea
beharrezkoa da gainera, gaurko egoera-
ren atzean lan merkatuaren errealitatea
dagoelako bereziki. Eta hirugarrenik,
pentsio duinak ziurtatzea bada helburua,
aproposa da kotizazioez hitz egitea.

Hiru gauzak Espainiako Estatuako *ezkerreko* gobernuaren eskutik badatoz, hauek 2008ko krisian gauzak goitik behera aldatzea masiboki eskatzen zutenekin batera gobernatzen dutenez, eta ezker soberanistekin akordioak egiteko gai direla erakutsi dutenez, ez litzateke gehiegizkoa pentsatzea badagoela aukerarik erreforma neoliberalen soka luzea apurtzeko. Halakorik ez oraingoz.

Kapitalak ezarritako eztabaida-markotik abiatu eta hor bukatu dira diagnostikoak eta neurriak: sistema publikoaren bideragarritasuna auzitan jarri eta lan merkatua aldatu gabe finantziazio iturriak hobetzeko saiakera antzuak egin, dagoena ahal den moduan mantentzeko helburuz. Eta nola ez, krisi demografikoa da edozein murrizketa justifikatzeko arrazoiak.

Ez da pentsio zein lan merkatuaren sistemen egiturazko akatsez eztabaidarik izan –besteak beste, enplegua bada esku-bide iturri, bazterketa iturri da emakumeentzat betidanik, belaunaldi berrientzat aspalditik, etorkinentzat betirako...–. Ez da egin apusturik esku-bide sozialak aurrekontu neoliberalen pean utzi dituen erreformak deuseztatzeko. Ezta benetako alternatibei instituzioen atea irekiko dizkien erabaki politikorik hartu ere.

80ko hamarkadan abiatutako erreformak etetea erabaki ezean, gaur txarra eta etzi okerragoa den bidea elikatzen da. Politika, txarra eta okerragoaren artean erabakitzen jakitea dela esan zidan behin instituzioetan eskarmentu handia zuen batek. Eskuindar amorratua den gizon nagusi orojakintsuari ez nion erantzun. Zertarako? Politika pertsonen bizitzak aldatzeko erabakiak hartzeko bidea dela esaten duten politikariek erantzutea derri-gorrezkoa iruditzen zait ordea. ●

ANALISIA



ALAINE ARANBURU / BIDASOAKO HITZA

Jasan daitekeenaren muga

PERU IPARRAGIRRE

Larunbatean 38 urteko gizon baten gorpua aurkitu zuten Bidasoako uretan, Endarlatsa inguruan. Aurten Euskal Herria migrazio bidean zeharkatzen ari zela hildako zazpigarren lagunaren hilotza. Zifrek ezin dute gertatzen dena egiaz deskribatu, baina lazgarriak dira berdin-berdin. Bidasoa igerian igarotzen ari zela hil den hirugarren migratzailea da larunbatekoa, eta ibai ertzean Eritreako gazte batek bere buruaz beste egin zuen apirilean. Duela hilabete pasa trenak hiru lagun hil zituen Ziburun, eta orain egun gutxi tren batek beste gazte bat zauritu zuen Donibaneko trenbideetan.

Irungo Harrera Sareak duela hamar egun eskas salatu zuen migratzaileak erabaki arrisksuak hartzera behartzen dituela mugako egoerak. Pasabideak gero eta modu zorrotzagoan ixteak eta migrazio bidean daudenak artatzeko erakunde publikoek duten borondate faltak areagotzen dute arrisku hori. Irugarritako heriotza deitu diote larunbatekoari: gertatuko zela esan zuten eta gertatu da. Ahazteko luxua dugunok bat-batean Frantziako eta Espainiako estatuek Euskal Herrian duten muga migratzaileentzat bilakatzen den pasabide arrisku-tsu eta hilgarriaren egoeraz jabetu gara berriz. Tragedia hitza errepikatzen da behin eta berriz, instituzioetako agintarien auhenen eta botere handiagoei egindako eskaeren aurrean nabarmenak dira egunero-egunero babesgabe dauden horiek laguntza ematen ahalegintzen direnen haserre eta desesperazio hitzak.

Europar Batasunari –haren Poloniako muga igaro nahi duten migratzaileei indar militararekin erantzuten ari den horri– migrazio bide seguruak eskatu dizkio Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo zuzendariak. Markel Olano Gipuzkoako Aldundiko ahalak nagusiak “sumindura eta atsekabea” adierazi ditu. Irungo alkateak Irun eta Hendaia arteko mugak “birplanteatzeko” eskatu du, Europari eta Frantziari dei eginez pasabidea irekita mantentzeko. Bide seguru horiek egon artean, ordea, ez egoteak eragiten duen sufrimendua arintzeko eta murrizteko erakunde guztiek “zerbait gehiago” egin dezaketela salatu du Irungo Harrera Sareak, behin eta mila aldiz errepikatu dutena.

Muga asko batzen dira Bidasoan, eta horietako bat da jasan daitekeenarena. Bideko gau bat gehiago kalean eman ala ibaia gurutzatzen ahalegindu erabaki behar dute milaka kilometroko bidea egin ostean Irunera heltzen diren migratzaileek. Igarobide beharrean zarratutako ate diren zubien aurrean zer egin behar dute, bada? Mugitzeko aukera askea ezinbestekoa da, ezinbestekoa da babesgabei behar duten laguntza guztia ematea, baina ezinbestekoa da, baita ere, arazo zabalagoari begiratzea, neurri aringarriak neurri aringarri besterik ezin dira izan, eta hain zuzen ere egoera lazgarriaren erantzule direnei eskatzen zaie aterabidea. ●

MOTZEAN

COVID ziurtagiriaren kontrako erabakia hartu du EAeko Auzitegi Nagusiak, hori horrela, ez du onartu Jaurilaritzaren eskaria.

Amiantoaren biktimentzako 25 milioi euroko funtsa adostu dute EH Bilduk eta Espainiako Gobernuak, 2022ko aurrekontuen negoziaketetan.

Hitzetik ekintzetara pasatzeko deia eginez dator 22. Korrika. Martxoaren 31tik apirilaren 10era egingo da, Amurriotik Donostiara.

Errigorak 235.000 euro bildu ditu Nafarroa hego eta erdialdeko euskalgintzarako. Nafarroako erakundeei eskatu diete euskararekiko "dagokien erantzukizuna" euren gain hartzeko.

EH Bilduk "erresistentziazatik askatasunera" igarotzeko beharra aldarrikatu du, milaka lagun bildu dituen manifestazioan. Arnaldo Otegi dei egin du "estatus berria" eraikitzeko "bloke historikoa" osatzera.




"Orain arte 24 orduz egon naiz amarekin, eta gerora, urtean 24 orduz ikusiko dut bakarrik"

IZADI GUTIERREZ

Maria Lizarraga eta Iñigo Gutierrez euskal presoen alaba da Izadi. Gaur egun, haiekin dago Aranjuezeko espetxean, baina urtarrilean, 3 urte betetzerakoan, espetxetik aterako dute eta bere gurasoengandik urrunduko dute. Izadi Gurasoekin Etxera ekimenak eskatzen du Izadik gurasoekin jarraitzea, askatasunean.

AHOTSA.INFO (2021-11-19)



"Okertu baginen, ez zaigu kostatzen Zabalza, Arregi eta Rodríguezen familiei barkamena eskatzea"

IÑAKI URIARTE

Hala mintzatu da Navarra Sumako parlamentaria: "Erraten ari naiz azken 40 urteetan dena ongi egin dugula? Ez, autokritika egiten dugu eta erraten dugu [Mikel] Zabalza, [Mikel] Arregi, [Germán] Rodríguez eta gisa horretako berte askoren familiei ez geniola adierazi gure kariñoa, ez genuela jakin justizia jasotzeko duten eskubideei behar moduan eusten ere; eta, okertu baginen, ez zaigu kostatzen familia horiei barkamena eskatzea".

2021-11-17



%50 da pandemiako neurriengatik ondoan lagunik gabe erditu diren emakumeen kopurua munduan. Zainketa intentsiboetara eraman zituzten haurren %21ak ez du gurasoen bisita bakar bat jaso.

3 emakumetik bati ebakitzen diote bulba erditzerakoan, OMEren aholkuen aurka. Espainiako Estatuan oraindik behar baino gehiagotan egiten diete episiotomia bagina bidez erditzen duten emakumeei. Frogatuta dago ondorio fisiko zein psikologikoak uzten dituela.

Datuen beharra sortzen



DIANA FRANCO

Lehenengo egunean Belen Gopegui idazleak parte hartu zuen mahai-inguru batean oso kontzeptu interesgarri bat partekatu zuen. Bere hitzetan, biosferak, bizitzari loturiko sistemak, datu ugari prozesatzen ditu, eta gizakiok azken urteetan sortu dugun datuen dinamikarekin alderatzen zuen. Gopegui kizioen, gaur, plataforma handiek jasotzen dituzten datuak naturari loturiko datuak bezala ulertu beharrean, fabrikatutako datuak bezala ulertu beharko genituzkeela. Hau da, non erosi duzun (lekua, denda...) ez da naturarentzat datu baliagarria, informazio hori barik funtzionatzen jarraitu baitezake naturak, ez ordea datu horren inguruan sortu den ekonomiak. Datuaren beharra sortu da gizakion gizartean.

Berrikuntzak dakar gizarateak aldatzea, sorturiko behar berriak txertatu ahal izateko

Enpresen administrazio eta kudeaketan lizentziatura egin nuen, eta unibertsitatean erakusten ziguten, beharrak asetzea zela merkatuak lortzeko eta negozioak garatzeko modu bat. Geroago oso asetuta zeuden merkatuak izanik, behar berriak sortzearen ideia etorri zen, eta horrekin batera berrikuntzaren beharra sortu zen. Berrikuntzak zekarren gizarateak aldatzea, sorturiko behar berriak txertatu ahal izateko.

Datuaren beharraren inguruan, gure gizarateak forma hartzen dabiltzala ikusten gabilta. Non sortu daitezke datuak fabrikatzeko behar gehiago? Zein eraldaketa ekarriko dituzte gure gizaratean? Zer egin behar genuke horretara egokitu beharrean ahotsa/agentzia izateko? ●

Oposizioak ere bozkatzen duen diktaduran

AXIER LOPEZ

Chavismoak hauteskondeak irabazi ditu berriro, enegarren aldiz azken bi hamarkadetan. Igande honetako eskualde eta udal hauteskundeetan PSUV 23 estatuetatik 20tan izan da garaile. Oposizioaren Mesa de la Unidad Democrática alderdiak Cojedes eta Zulian irabazi du eta Fuerza Vecinalak Nueva Espartan. Nicolás Maduroren alderdiak herrialdeko alkatetzarik garrantzitsuenari eutsiko dio: Caracas. Hala ere, irabazle nagusia beste bat izan da: abstentzioa %58tik gorakoa izan da.

Dena dela, Hugo Chávez boterera iritsi zenetik gertatu ohi denez, hauteskunde oro chavismoari buruzko plebiszitu gisa agertzen zaigu. Hauen moduko bozketak ia oharkabean igaroko lirakeke Abya Yalako beste edozein herrialdetan egin izan balira, baina nazioarteko albisteetan neurritz kanpoko pisua izaten jarraitzen du Venezuelak. Horregatik, nazioarteko 300 begiralek baino gehiagok, horietatik Europar Batasuneko 100 inguruk, igandeko hauteskondeak "zaindu" dituzte.

Emaizak alde batera utzita, hauteskondeak oso garrantzitsuak izan dira, oposizioaren muturreko indarren estrategia aldaketa islatu dutelako. Lehenengo bidea Juan Guaidó hezurramitutakoa zen. Kolpismoa. Gobernu eta presidente birtual paralelo bat sortu zuten, legezketasunik eta legitimitaterik gabea, baina Washingtonen eta Europar Batasunaren babesarekin. Denborak aurrera egin ahala, ordea, Venezuelako oposizio hori eta berau babestu zuten nazioarteko gobernu neoliberalak irteerarik gabeko kalezuloan sartu dira. *Guaidó* esperimenduak porrot egin zuen, batzuen buruan eta Twitterren baino ez zelako existitzen.

Hala, ia beti zatituta dagoen Venezuelako oposizioak logikaz aldatzea erabaki du Venezuela krisi politiko eta ekonomiko sakonean dagoela. 2019az geroztik, gobernuaren eta oposiziogileen arteko Elkarrizketa Nazionalerako Mahaiak akordio garrantzitsuak




lortu ditu. Adibidez, aurtengo maiztzean, gobernuak Hauteskunde Kontseilu Nazionala berritzeko prozesua abiarazi du, eta, beste neurri batzuen artean, bost kontseilukideetako bi oposizioko ordezkariak dira.

Akordioz akordio, abuztuan Mexikon, chavismoak eta oposizioak "elkar ulertzeko memorandum" bat sinatu dute. Besteak beste, ondoko konpromisoak hartu dituzte bi aldeek beren gain: pertsona eta talde ororen esku-bide politikoak errespetatzea; Konstituzio Estatuarekiko errespetua eta erakunde politikoen aurkako biolentzia arbuiatzea; bizikidetzara politiko eta soziala eta biolentziaren biktimei erreparazioa; ekonomia nazionala babestea eta akordioen implementazio eta jarraipenerako bermeak.

Venezuelako oposizioak hauteskundeetan parte hartzeak zehaztugabeko baieztapen asko argitu ditu; izan ere, orain arte eskuineko oposiziogileek argudiatzen zuten abstentzio handia gobernuaren aurkako jarrera orokorraren eta oposizioaren indarraren isla zela. Baina, bereziki aurrerapausoa da Venezuelako oposizioa, kolpismoa jo beharrean, elkarrizketarako prest egotea. Halere, azken bi hamarkadako historiak erakutsi bezala, nazioarteko komunitatearen jarrera izango da, neurri handi batean, venezuelarrek, kanpoko esku-sartzerik gabe, ibilbide propioa jorratzen jarraitu ahal izateko aldagai eta baldintza nagusia. ●

Hainbat hedabide independenteri zibererasoa egin diote

Hainbat hedabidek eraso informatikoa jasan dute, irakurleek ezin izan dute haien webguneetan sartu joan den asteburu osoan. *El Salto* hedabideak jasan duen eraso DDoS moduan da ezaguna. IP askotatik sartuta eta 'bots'-ak erabilia, zerbitzaria erorarazten da informazio eske oldeak eginda.



OHARRA / Prentsa askatasunari eta adierazpen askatasunari egindako eraso zuzen honen aurrean, jomugan diren proiektu horiei eta bertako langileei gure babesa eta elkartasuna adierazi nahi diegu ARGIAko lankideok. Batzuek diskurtso jakin bat gailentzea baino nahi ez duten garaiotan, deserosoa zaien kazetaritza isilarazi nahi duten honetan, hain garrantzitsua den prentsa askatasuna aldarrikatzea eta zein beharrezkoa den azpimarratzea dagokigu. Mehatxuen aurrean, jaso dezatela gure bultzada *El Salto*, *La Marea*, *La última hora*, *Kaos en la red*, *Arainfo*... eta erasoen biktima guztiek.



KARBONO MERKATUAK ADOSTU DITUZTE GLASGOWN, SISTEMAK BERE HORRETAN SEGITZEKO GISAN

Berotegi efektua eragiten duten gasen isurketak murrizteko asmoz, 1997an izenpeturiko Kyotoko Protokoloak ekarri zuen karbono merkatuaren aukera, ondotik Parisko Akordioak gauzaturikoa eta behingoan, Glasgowko gailurrean xeheki adosturikoa. Munduko kutsatzaile handienak pozik agertu dira lortutakoarekin, ekologistak eta Hegoko autoktonoak haatik kezkatu eta haserre. Hain zuzen, karbono neutraltasunaren izenean, kutsatzen segitzeko aukera irekitzen du mekanismoak, lurren ustiapen basatia areagotuz gainera.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ez da kasualitatea kutsatzaile nagusienak karbono neutraltasunaz mintzo badira etengabe, eta COP26an karbono merkatuaren alde hitz egin badute: *business as usual* [negozioa beti bezala] gisa segitzeko bidea dute, klimaren, bio-niztasunaren eta giza eskubideen kalteetan" CCFD-Terre Solidaire Gobernuz Kanpoko Erakundeko Myrto Tilianakiren irakurketa dugu hau. "Karbono merkata" eta "karbono neutraltasuna" terminoen atzean gordetzen dena ulertzeko tartea hartu beharra dago, susmagarri ditugulako ikusita klima larrialdiari aurre egiteko aterabide gisa jartzen dituztela multinazional boteretsuenek, Iparreko herri aberatsek, petrolio enpresek eta finantza munduko handienek.

1997an Kyotoko Protokoloak planteaturikoa eta 2015eko Parisko Akordioko seigarren artikulua karbono merkatuaren inguruan dakarrena adostu dute Glasgow. Adosturikoa irudikatzen konparaketa simple bezain argia plazaratu zuen Greta Thunberg ekologista gazteak: "Poztasunez jakinarazten dizuet irain neutraltasuna finkatu dudala: zeozer desegoki esaten badut, hitzematzen dizuet esan atsegin batez konpentsatuko dudala". Horretan gara: karbono kuota gaitu arren, isurtzen segitzeko gisan A estatuak edo enpresak erosi ditzazke B estatu ala enpresari erabili gabeko isurketa kuota edota karbono xurgaketa dakarten proiektuei

esker lortu karbono kredituak; karbono neutraltasuna segurtatuz tratuari esker. Aldekoen hitzetan isurketen gutxitzea "akuilatzeko" tresna egokia da, "borondatezkoa" izanik gainera. Kontrakoen hitzetan, aurpegia berdez pintatu eta kutsatzen segitu ahal izateko bidea dakar.

Berez klima aldaketari aurre egiteko beharrezkoa dugu karbono neutraltasuna, zientzialari adituez osaturiko IPCC egiturak abisua eman zigun uda honetan: beroketa klimatikoa 1,5 gradutan mantentzeko behar dugu karbono neutraltasuna 2050erako. Baina ez da dudarik *greenwashing* edo garbiketa berderako helburu –karbono neutraltasuna– eta bide –karbono merkata– izan daitezkeela ere; eta Glasgow entzundakoa kontuan harturik badirela ere. Adosturikoa "deitoragarritzat" jo dute talde ekologistek. Ondokoa dio Greenpeacek: "Estatuen traizioa bikoitza da. Batetik, herri zaurgarrienek beharrezko dituzten finantzamenduak ez dituzte mahai gainean jarri nahi; bestetik, karbono kredituak bideratzen dituzte, zigorrik gabe kutsatzen segitu ahal izateko, Parisko Hitzarmena *greenwashing*-erako makina erraldoi bihurtzeko arriskua hartuz". Deitoragarritzat, adibidez, adosturiko karbono merkaturako Indiak, Brasilek eta Txinak esku artean atxikitzen dituztela 2013 urteaz geroztik metatu 300 milioi karbono kreditu –konparatzeko, Europako lehen gaien

industriak (meatzaritza, petrokimikoa, siderurgia, papergintza,...), hegazkintzak eta energiaren sektoreak isuritakoaren 1/5aren heina-. Baldintza hori segurtatzen nahian zebiltzan eta lortu dute.

KUTSATZAILEEK BEHARREZKOA DUTEN "SOLUZIOA"

Begibistakoa gelditu da estraktibismoan diharduten enpresa eta lobbyek Glasgow ukan duten presentzia: 503 ordezkari orotara, Global Witness GKEak egin kontaktuari segi. Tartean, IETA Emisio Eskubideen Aldeko Nazioarteko Elkarrekin, klima politikak bideratzen dabilena, eta estraktibista kutsatzaile handiz osaturikoa –Shell, Chevron, BP, Total petrolio konpainiak, besteak beste-. Izenak dion bezala sutsuki dabil karbono merkatuaren alde.

Karbono neutraltasuna "*statu quo*-a mantentzeko tranpa" dela irakurri daiteke CCFD-Terre Solidairek ateratako *Compensation carbone: tout sauf neutre!* ("Karbono konpentsazioa: neutroa izan ezik, beste guztia") txostenean, eta hori, isurketak gutxitzeko beharra saihesteko bidea irekitzen duelako. Gainera, lurren ustiapenaren emendioa dakar joerak: "Karbono xurgatzeko hamarnaka milio hektarea liratezke behar eta lur bilatzaile olde horrek naturaren finantzarizazioa ekarriko luke". Oxfam-ek iaz jakitera eman zuen karbono neutraltasunaren helburua gauzatuz gero ez litzatekela



AUTOKTONOAK KEZKATURIK.

Hegoko herrietako autoktonoak egon dira Glasgown, baina, beste behin ere, haien eskakizunak ez dira behar bezala kontuan hartuak izan.

gehiago nekazaritzarako lurrik -1,6 bilioi hektarea oihan beharko lirateke, hau da, bost aldiz Indiaren azalera-. Joera honen ondorioz 2050 urterako jakien prezioa %80 igoko litzateke, GKE honen arabera. “Soluzio’ hauen eraginez gosetea, lurren desjabetzeak, bioaniztasunaren gale- ra eta giza eskubideen zangopilatzeak emendatuko dira, kutsatzaileek aitzakia gisa erabiltzen dituztelarik kutsatzen segitu ahal izateko”, Armelle Le Comte, Ox-fameko kidearen hitzetan.

Glasgown ez dute onartu lurrak kar- bono merkatuetatik kanpo uztea -nahiz eta ekologistek eta Hegoko herri pobreek hori zuten baldintza gisa jarrita-. Lur hauetan direnen biziraupena eta elikadu- ra burujabetza badira jokoan. *COP26: les peuples autochtones victimes du marché*

carbone (“COP: herri autoktonoak kar- bono merkatuaren biktima”) artikulua plazaratu zuen *Mediapart*-ek Glasgownko gailurraren biharamunean. Total petrolio multinazionalak Kongoko Errepublikan bideraturiko 40 milioi akaziako mono- kultura jartzen du adibidetzat -Climate Accountability Institutuen sailkapenaren arabera, munduko hogeit hamar enpresa kutsa- tzaileen artean dago Total-. “Autok- tono eta laborariak haizaturik, 40.000 hektarea nahi ditu Totalek, bertakoa ez den espezie baten monokulturaz estaliz sabana”.

Oihanen landaketa, urtegi hidroelek- trikoen eraikitzea, eremu naturalen ba- bestea... hamaika bide daude karbono konpentsaziorako. Arazoa da Iparrekoek kutsatzen segitu ahal izateko, proiektu

tu hauek Hegoan eraikitzen dabilzala. Kapitalismoaren eta kolonialismoaren aurpegi berria dugu. Herritarren eta au- toktonoen eskubideen bermea seigarren artikuluan sartzea eskatzen zebiltzan ekologistak, baina ez da halakorik onartu Glasgown. Ikusi beharko da zer nolako pisua ukanen duen, baina, salaketa sis- tema baten sortzea onartu dute, eskubi- deen errespetu- ezak salatze gisan.

Glasgownko herri aberatsen gailurra izan dela entzun da. Hori horrela da, eta asumitua daukate 2100erako 2,7 gradu- ko “beroketa katastrofiko” ezingo du- gula saihestu. Uda honetan ezaguturiko IPCCren seigarren txosten alarmista ez da nahikoa izan aldaketa bideratzeko. Berdin segituko dugu, hezur-muinaraino izorratuz Hegoko lurretan bizi direnak. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com





ASKATASUN ESPARRUA DA SOINUA



Soinu bidez sortzen du. Soinua du ikergai. Soinua, teknologiak, irudia, eta gorputza. Ahotsa eta espazioa. Eta espazioen soinua. Soinuak entzuteko dugun moduak asko omen dio norbere buruaz. Aditu diot. Eta hau da entzun dudana.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Artista eta arte-ikerlaria zara, baina, beti azpimarratzen duzu ez dituzula Arte Ederrak ikasi.

Hala da. 18 urte nituenean ez nekien oso ondo zer ikasi. Filosofia, medikuntza, ingurugiro zientziak, ikus-entzunezko komunikazioa... Sekulako kaka-nahastea nuen buruan! Nota eman zidatenean ikusi nuen medikuntza edo ikus-entzunezko komunikazioa ikasteko modukoa zela, eta azkenekoa aukeratu nuen. Kamerarekin ibiltzea beti gustatu izan zait, eta horregatik. Karrera ez zen izan espero nuen modukoa eta ikasketak bukatu ondoren Madrilera joan nintzen. Hor hasi nuen benetako ikasketa prozesua. Zortzi urtez egon nintzen bertan. Hainbat ekoiztetxetan egin nuen lan. 4 cabezas, Warner Bros... bideo piezak egiten nituen haientzat. Eta han hasi nintzen bideo-sormenaren inguruan gauzak lantzen, nire pieza propioak eta nire praktika propioak bilatzen. Nire

ahotsa, bideo bidez. Ez hainbeste komunikazio ikuspegitik, baizik eta arte ikuspegitik gehiago. Abstrakziora jo nuen. Eta konturatu nintzen nire abiapuntua beti soinua zela.

Soinuak eraman zintuen artearen mundura, beraz?

Soinutik abiatzen nuen bideo sorkuntza lan horretan trebatu nahi nuen. Horretarako, 30 urterekin erabaki nuen Arte Ederretako master bat egitea. Bilbora itzuli nintzen eta orduan zapaldu nuen lehen aldiz Arte Ederretako fakultatea. Masterra asko gustatu zitzaidan eta oso laburra egin zitzaidan! Erabaki nuen inguru horretan jarraitu nahi nuela, sortzen eta ikertzen, eta orduan tesia egitea izan zen horretarako bidea. Bekarik gabe, noski, zaharregia nintzelako diru-laguntzarik jasotzeko, baina euskaltegian aritu nintzen lanean tesia egin bitartean, eta halaxe hasi nintzen.

Orduan egin zenuen topo akusmatikarekin.

Hala da. Filosofia asko gustatu izan zait beti. Barruan nuen ikus-entzunezko komunikazioa ikasi izanaren arantzatxoa, Filosofiaren kaltetan, eta tesia egiten ari nintzela filosofia testuak irakurtzen hasi nintzen. Soinuarekin loturiko kontzeptuak bilatzen nituen, eta akusmatikarekin egin nuen topo. Eta konturatu nintzen kontzeptu horrek balio zidala aldi berean ikertzeko, eta sortzeko. Denak zentzua hartu zuen niretzat. 80ko hamarkadan soinu-arte ikertzen zuten hainbat ikerlarik berreskuratu zuten akusmatika kontzeptua, greziar antzinatetik. Kontzeptua Pitagorasek erabiltzen zuen. Esaten da filosofoak gortina baten atzean jarrita ematen zizkiela eskolak bere ikasleei, bere presentziak bere irakurketen edukitik aldendu ez zitzan. Baldintza horietan ikasleen arreta ezinbestean ahotsera, soinura bidera-



Oihane Iraguen Zabala

BILBO, 1985



Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen lehenik, kritika zine-matografikoko masterra egin zuen gero (Euskal Herriko Zinema Eskola), eta Arte teknologiko eta performatiboko masterra azkenik (EHU). Arte Ederretako doktorea da, eta Arte eta Teknologia Sailean ari da irakasle lanetan Euskal Herriko Unibertsitatean. Akademiatik kanpo, arte sorkuntzan dihardu, eta Artiatx arte espazioko kidea ere bada.

tzea nahi zuen, entzumenaren zentzua areagotzeko. Soinu-artista hauek arreta soinura bideratzea nahi zuten berriz ere. Ez soinuaren jatorrira. Izan ere, soinua beti zerbaitena dela pentsatzen dugu, nahigabe. Soinu hau honena da, edo beste horrena da. Txakur baten zaunka soinua. Pertsona baten ahots soinua. Auto baten soinua, euriarena. Artista hauek soinua bere jatorritik desberdintzea nahi zuten, eta soinuari berari ematea izaera propioa. Eta bide hori interesatu zitzaidan bai ikerketarako eta bai sormenerako.

Zergatik zaizu soinua hain erakargarri, baterako zein besterako?

Interesatzen zait ez delako gauza material bat. Ez delako gorputz jakin bat. Ezin du abstraktuagoa izan. Eta horrek sekulako potentzialitatea du. Soinu bat entzuten dugunean gure subjektibitateak irudiak eta gorputzak sortzen ditu. Bakoitzak bereak. Soinuaren abstraktutasunak atea zabaltzen die irudikapen horiei. Pinturak eta eskulturak ere gudan sortzen dituzte iruditeriak eta bakoitzak bere erara ulertuko ditu, baina, soinuak, ezinbestean, euskarri materialik ez bisualik ez duenez, gure barnean dagoena ikusaraztera eramaten gaitu. Askatasun esparrua da soinua.

Horregatik interesatzen zait entzutearen ekintza, eta irudi-ezetik abiatuz sortzen diren soinu-irudi mentalen sorrera prozesuak eta subjektibazioak. Tesian, adibidez, entzute-saio batzuk aztertu nituen. Jendeak soinu batzuk entzun eta deskribatu egin behar zituen. Lehenik alde estetiko hutsetik: tinbrea, armonia, erritmoa... Baina alde estetikotik ere bai, hots, beraien pertzepzioetik. Zer sorrarazten zien soinu hark, zein irudi ikusarazi... Eta harrigarria da nola norbere entzute ariketa subjektiboa ere sozialki eraikia den. Ikerketak erakusten zuen ez zutela soinu bera berdin entzuten musikariek, artistek, hezitzaileek, medikuek, ala bestelakoek. Bakoitzak bere erara entzungo zuen, noski, baina, itxura guztien arabera, norbere eguneroko praktikek eragiten dute



soinuak entzuteko eta aztertzekeo dugun moduan.

Gero dago soinua eta teknologiaren gaia.



Teknologiak sekulako potentzialitatea dute, hain zuzen kutxa beltz bat direlako, indarrean dauden zenbait dikotomia hausteko: natura/kultura, emakumea/gizona, analogikoa/digitala...

Gaur egungo teknologien bidez soinu-eremu akusmatikoak sortzen ditugu etengabe. Teknologia gero eta garatuagoa da, eta erabiltzaileok ez dakigu hor barruan zer gertatzen den. Badakigu aparatu batera soinua sartzen dela nolabait, eta gero beste nonbaitetik ateratzen dela, baina tartean dagoen hori guztia ez dugu ulertzen, ez dugu ezagutzen. Kutxa beltz bat da. Pitagorasen gortina moduko baten atzetik entzuten dugu entzuten duguna. Horregatik interesatzen zait teknologia. Kutxa beltz horrek gizartean dauden zenbait botere harreman hankaz gora jartzeko aukera ematen digu. Hori da, esaterako, ziberfeminismoaren oinarria.



Ziberfeminismoa 90eko hamarkadan sortu zen, teknologiararen esparruan ere praktika eta teoria feministak garatu ahal. Izan ere, teknologiek sekulako potentzialitatea dute, hain zuzen kutxa beltz bat direlako, indarrean dauden zenbait dikotomia hausteko: natura/kultura, emakumea/gizona, analogikoa/digitala, fisikoa/birtuala... Gaur egungo teknologiek muga zurrin horiek zalantzan jartzea ahalbidetzen dute. Esfera ublikoa den esfera pribatutik borroka egiteko aukerak ematen dituzte, identitate berriak sortzeko, desagiteko eta berregiteko. Ziberespazioan, alegia, gure ziberlogeletan izateko forma berriak, alter egoak, nick-ak asmatzen ditugu, eta horietatik errealtate berriak sor ditzakegu.

Eta artean? Nola erabiltzen duzu soinua sortzeko?

Soinuak duen ukiezintasunak, birtualtasunak, gaitasun iradokitzailea ematen dio artea sortzeko ere. Ez du materialtasunik, baina soinua bera da nire sorkuntzarako lehen materiala. Soinuak grabatzea gustatzen zait. Nire ordenagailuko disko gogorrean auskalo zenbat karpeta izango

ditudan! Gero batzuk erabiltzen ditut, eta beste batzuk ez. Baina, nire dokumentazio intimo moduko bat da, eta biltzearen ariketa bera gustatzen zait. Batzuetan soinu horiek moldatzen ditut, soinu-sintesia egiten dut, ala ez... Beste batzuetan soinua bera ikus-entzunezko formatura pasatzen dut, edo irudi bilakatu... Hasten naizenean ez dut jakiten nola bukatuko dudana. Askotan, gainera, ez dut bakarrik lan egiten, kideren batekin baizik. Beraz elementu askoren batura eta itzulpen ariketa da nire sorkuntza prozesua.

Hainbat erakusketatan parte hartu duzu, soinua eta irudia harremanetan jarriz.

Tabakalerako Medialab plataforman parte hartzera gonbidatu gintuzten ni eta Jonathan Garcia Lana *Tunipanea* sortzaile eta luthier esperimentalak. Hortik sortu zen *Mekanika behartuak* lana. Pieza bat sortu genuen egonaldian, bideo instalazio bat, baina funtsean bi diziplinen hibridazioaren emaitza zen. Nik bideo bat sortu nuen, eduki bisual organikoak eta gorputz mugimenduak ikusarazten zituen eta *Tunipanea*-k, software bat erabiliz,



SOINU ARTEA

"Ez zaizkit kategorizazioak gustatzen, ezertan. Artean ere ez. Zer da soinu-artea? Arteen arteko artea deitu izan zaio gure diziplinari. Ez da arte mota berri bat, baina Espainiako Estatuan, esaterako, duela bi hamarkada eskas onartu zen diziplina independente gisa. Baina soinu-arTEAN erabiltzen dira bideoak, performanceak, antzerkia, ahotsa... Eta badago soinurik ez duen soinu-arTEA ere. Horrez gain, soinu-artetzat ez dauzkagun hainbat diziplinan erabiltzen da soinua. Kategorizatu daiteke pieza bat hemen alahan, baina, izatez, ez diot zentzu handirik ikusten".

EUSKAL HERRIAN

"Gero eta soinu-artista gehiago daude Euskal Herrian. Gehienak gizonezkoak, hori bai. Eta artistez gain ekimenak ere badaude. L'Arraskito Kluba desagertu zen, baina, Zarata Fest egiten da urtero toki ezberdin batean, Alondegian Hotsetan programa sortu zen, eta bertan Oier Iruretagoiena, Miguel Ángel García eta Enrike Hurtado ari dira lanean, musika esperimentalaren eta soinu-artearen inguruan ikertzeko eta artistak ekarrazteko. Eta Arte Ederretako ikasleengan ere gero eta interes handiagoa ikusten dut soinuaren inguruan jarduteko".

bideoan erregistratutako mugimenduak partitura bilakatzen zituen, eta partitura horiek musika, piano zahar baten zati mekanikoak erabiliz.

Apenas zurrumurru bat lanean, berriz, lau akusmografia osatu nituen, musika partitura baten kontrako norantza duten marrazkiak, hain zuzen ere. Soinua

bera konposatu ostean, software batetik pasatzen nuen soinua, soinua irudi bilakatzeko parametroak aukeratuta. Horrela soinua irudi bilakatzen nuen, soinua eta zentzuaren arteko ika-mikak islatzen saiatzeko.

Baina soinua mila erataria erabili daiteke artean. Soinuaren bidez espazioa hartzen da, literalki.

Hori azaldu egin behar didazu...

Nire ikerketa jardunean soinuen eta espazioen arteko harremana aztertzen dihardut. Ezinbestean uztartzen ditut biak. Beti esaten da espazio batek soinua propioa duela eta soinua batek espazio propioa sortzen duela. Eta hala da. Soinu bat ez da berdina leku batean ala beste. Eta espazioa ere eraldatu egin dezake soinua batek. Eta horrek soinua-artearen bidez eraldaketa prozesuak sortzeko aukera ematen du.

Bereziki interesgarriak zaizkit, esaterako, soinua interbentzioak. Susan Phillips edo Janet Cardiff-enak, esaterako, edo azken aldia deskubritu dudana Perilla deitzen den musikariarenak. Urrutira joan gabe, Mikel R. Nieto artista donostiarra duen entzutearekiko sentsibilitatea deigarria egiten zait, eta gustatzen zait nola bideratzen duen entzuteko modua

berezi hori bere soinua praktika propioa. Azken urteetan Nieto bera Jone San Martin dantzariarekin elkarlanean dabil soinutik gorputzerainoko bidean sortzen diren soinua proposamenak ikertuz. Eta alderantzizko norantza ere bai. Ez da belarriekin bakarrik entzuten, gorputz osoarekin baizik. Eta soinua bidez espazioa hartu daiteke. Hartu, eta eraldatu.

Horixe egin zenuten Artiatx espazioarekin ere, hartu eta eraldatu. Nola sortu zitzaizuen fabrika zahar hori arte-espazio bihurtzeko ideia?

Dena txantxa bat izan zen. Irati Urrestarazu, beste artista bat eta ni, San Frantzisko auzoko estudio batean ari ginen lanean. Baina oso txikia zen, oso garestia, sekulako hezetasuna zegoen bertan... eta beste leku baten bila hasi ginen. Eta bat-batean interneteko bigarren eskuko gauzak saltzeko webgune batean ikusi genuen norbaitek lokal bat alokatu nahi zuela, Zorrotzaurren. Hara joan ginen, lokal ezin itsusiago bat erakutsi ziguten, eta guk ezetz. Orduan jabeak esan zigun gainean bazuela beste lokal bat, printzipioz alokatzeko asmorik ez zuena. Eta Artiatx fabrika zaharra zen. Sekulako presentzia duen

eraikina da. Deustuko erriberan dago, eta oso argi ikusten da nolakoa zen jatorrizko gaileta fabrika hura. Non zegoen produktzioa, non bulegoak... Oso polita da. Eta pentsatu genuen, "hartu egingo dugu". Jabearekin hitz egin genuen, eta azkenean oso prezio onean utzi zigun, garbitzearen eta zaintzearen truke. Orduan batu zitzaigun Javi Arbizu.

Hasierako asmoa hiruok gure arte sorkuntza lanetarako espazio bat edukitzea baino ez zen. Lehen urtea, noski, garbitzen eta espazioa atontzen pasatu genuen. Eta denborak aurrera egin ahala, eta espazioa txukundu ahala, beste biei bururatu zitzairen estudio batetik harago, egonaldi eta erakusketetarako leku bat sortzea. Pentsatu eta egin. 2019ko urtarrilean sartu ginen, eta lehen erakusketa 2020ko uztailean izan zen.

Azken urteetan, beraz, komisariotza lanean ari gara bertan. Soinu esku hartze bat prestatzen ari gara, eta asko interesatzen zait gonbidatutako artistek zer proposatzen duten. Nola ulertzen duten beraiek espazioa, eta nola sor dezaketene beste espazio bat hor barruan beraiek proposatzen dituzten soinuekin. Izan ere, eraikina bera arte diziplina ezberdinen erresonantzia kutxa bilakatzeko da helburua. ●

Euskaraz? **Pozik gainera!**

Ahoan igartzen da bihotzak zer duen egarri

943 73 71 91 · euskara@legazpi.eus
www.legazpi.eus

Legazpi Eskola
Legazpi Udala



‘Lurrari lotuz’, ‘Herrigaia’ eta beste gai ugari



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Eztabaida ezker abertzalearen baitan. Sortu da ezker abertzalearen alderdi politikoa, eta 3. Kongresua iragarri du. Kongresurako txostena aurkeztu den unean gertatu da ustekabea: *Herrigaia* izenekoa aurkeztu du oraingo zuzendaritzak, eztabaida guztia txosten ofizial honetatik bideratzeko asmotan. Baina beste txosten bat agertu da eztabaidarako, *Lurrari lotuz*, militante talde zabal batek prestatua, azken hau oso kritikoa zuzendaritzak azken bost urteetan hartutako bidearekin, eta bide alternatiboa proposatzen duena. Egoera hau berez da interesgarria, alderdien demokraziari zuzeneko apelazioa egiten diolako, militantziak izan behar duen erabaki-ahalmena eta indarrean den zuzendaritza kritikatu eta are aldatzeko aukera erreala plazaratzen dituelako. Zuzendaritzak okerreko bidea hartzen duenean, bada aukerarik okerrak zuzendu eta beste bide bat hartzeko?

Galdera larri hauek mahai gainean zirela sartu da ezker abertzalea Kongresurako eztabaida fasean. *Lurrari Lotuz* txostenaren defendatzaileek nahikoa lan izan dute beste txostenarekin berdintasuneko tratua lortzen herriz herri eta bileraz bilera, baina hasi da eztabaida eta aurkeztu dira militanteen aurrean proposamenak eta kritikak, alde bietatik. Hau berau ere oso inte-

Ze berme daukagu eztabaida horietan militanteen artean nagusi gertatzen diren tesiak gero praktika politikora aldatuko direla pentsatzeko?

resgarria bere horretan, ezker abertzalearen azken urteetako praktika politikoa osotasunean aztertu, epaitu eta zuzenketak burutzeko aukera ematen duelako. Lehen eztabaida balantzean kokatu da: ezker abertzalea trantsizio arrakastatsua burutzen ari da une honetan, batez ere EH Bildu eta EH Bairen eraikuntza eta indartzea oinarri hartuta, *Herrigaia*-k dioen moduan? Edo, aldiz, azken hamarkada luzean ezker abertzalearen estrategia lausotu egin da, prozesu independentista bera *impasse* egoeran murgildu, eta Estatu espainiarrari aukera eskaini zaio krisi instituzionala eta lurralde arrakala konpon ditzan, aliantza politika erratuaren ondorioz? Hauxe baita *Lurrari Lotuz* txostenaren iritzia. Ez du ikusten *Herrigaia*-k aurkezten duen balantze baikorregia zertan oinarritzen den,

are *Herrigaia*-k berak idazten duenean txostenean bertan honako hau: “Euskal Herria, ordea, herri gisa mehatxu eta ahulezia gune handien pean iritsi da une honetara”. Balantze baikorregi baten kontradikzioak.


Hemendik aurrerako bidea nola egin, hori da sakoneko bigarren eztabaida, eta horretan txosten ofizialak oraingo instituzioetako lana eta hauteskunde emaitzak jartzen ditu indar metaketaren erdigunean: “Prozesu soberanistak behar du gehiengo sozial bat, maila elektoral eta instituzionalean adieraziko dena”. Baina *Lurrari Lotuz* txostenetik argi erantzuten dute: “Hegemonia instituzionalarekin ez da boterea lortuko”. Herri boterea antolatzea da, orduan, proposamen alternatiboa, instituzionalizazio berria sortuz.

Era horretako gai mamitsuak plazaratzen direnean, ezin ukatu eztabaida oso interesgarria dela ezker abertzalean egunotan garatzen ari dena. Baina ezin ahaztu, oraindik orain, Kongresu baterako eztabaiden eremuan kokatzen garela. Ze berme daukagu eztabaida horietan militanteen artean nagusi gertatzen diren tesiak gero praktika politikora aldatuko direla pentsatzeko? Hau ere galdera pisuduna da, zalantzarik gabe. Ezker abertzaleko militanteak ahaldu beharko dira, eta lurrari lotuz jokatu. Baina horretarako omen dira kongresuak. ●

Amets bustiak eta txakur ametsak



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Badirudi multinazionalak, lobbyek eta *think tank*-ek, klima aldaketa ukatzeko hainbat eta hainbat milioi gastatu ostean (BP, Exxon, FAES, Google...), azkenik konturatu direla negozio handia ere ukatzen ari zirela horrela. Beharra bertute bihurtzearen abantailak. Administrazio kontseiluetan imajinatzen ditut, lukurreru keinuz eskuak igurzten, pozarren, gobernuek egin behar omen duten eta sano ordainduko duten (dugun) zorioneko trantsizio energetikoarekin ametsetan. Negazionismotik negozionismora. Baina amets bustiak eta txakur ametsak bat eta bera dira sarri.

Auto elektrikoen eta energia berriztagarriez nahi besteko berba egin genezake, baina famatutako trantsizio energetikoak lehengai eskas gehiegi ditu beharrezko. Bateriek kobalto, litio, manganeso eta nikela behar dute; LED-ek, galio eta indioa; eguzki panel berriek, kadmio telururoa... Wood Mackenzie energia arloko aholkularitza-enpresaren kalkuluen arabera, beroketari 2 gradutan eusteko, zera behar da: 19 milioi tona kobrea gehiago urtean (%60 gehiago); %30 gehiago aluminioaren ekoizpean; nikela, %50 gehiago; litioa, %140 gehiago; kobaltoa, %150 gehiago eta

abar. Hori guztia ekoizpenak eta kontsumoak gaurko mailetan jarrai dezaten.

Gakoa horixe da, hain zuzen, lehentasuna hona ekarri gaituen sistemari eustea den bitartean, gehien errepikatzen den berba "garapena" den bitartean, "jasangarri" abizen-apaingarriarekin bada ere, prokasinazioan tematzen diren bitartean, gureak egin du.

Etorkizuna heldu da. Zin egin diguten trantsizio energetikorako lehengai nahikorik ez ei dago mehatzetan. Eta mehatz berririk topatzeko eta ustiatzeko ere, pare bat hamarkada beharko lirateke. Errealitate setatiaren aurrean, pentsamendu magikoa: "Teknologiak salbatuko gaitu". Egin otoitz jainko berriari eta bere trajedun ordezkari lurtarrei.

IPCCkoek ondo ezagutzen dituzte enzunduror egiten dieten ordezkari politiko-ekonomikoak. Horregatik filtratu zuten txostena eta azaldu zuten bilorik gabe ahoan: edo ekoizpen eta kontsumo eredu aldutzen dugu edo ez da etorkizunik gizateriarentzat. Erabaki hori hartzen ez den bitartean, sinatzen den paper bakoitza heriotza-zigorren sinadura izango da.

Bestelako tenperatura batzuk ez bezala, enpresek tenperatura soziala neurtzea gustuko dute. Hala, esaterako, Salesforce aholkularitza-enpresak egindako inkes-

taren arabera, herritarren %73ak uste du premiazkoa dela paradigma ekonomikoa aldatzea. Jadanik ez da antikapitalisten edo deshazkunde taldeen aldarrikapena. Ez da harritzekoa enpresa handien aldetik inoiz baino ordezkari gehiago joan izana oraingo gailurrera, Arantxa Tapia tartean. Santa Teresaren testuetatik ez dago garapen ekonomikoa eta ingurumena bateratzea baino oximoron handiagorik.

Urte bi luze dira Urkulluk klima larrialdia deklaratu zuela. Alferrikakoa izan zen orduan deklarazio hartan neurririk topatzea. Ez zen bere helburua, baina. Egun hartan "estrategia" abiarazteko pistola-tiroa bota zen. Eta, honezkero, beste akordio batzuekin batera, badaukagu Basque Green Deal, 14 enpresa handi eta multinazionalen lotutako aliantza. PNV akordioaren bere parte bat betetzen ari da: interes ekonomikoak oztupoak kendu. Honen aplikazio praktikoa moduan, besteak beste, Interes Publiko Goreneko Proiektuak, enpresek azpiegitura handiak (zabortegiak, errauste plantak, fracking edo nahi duten edozer) edonoren eta edozeren gainetik burutu ahal izango dituztela bermatzeko. Eusko Jaurlaritzak ez du atzean presio lobbyrik behar, eurak dira Parkaren lobbya. ●

Glasgowko ajea



**MIKEL OTERO
GABIRONDO**
LEGE BILTZARKIDEA

Klima gailurraren zalaparta mediati-koa baretuta, ajea dator. COP26ak inflexio-puntua izan behar bazuen ere, atsekabea nagusitu da hartutako erabakien edo, hobe esanda, hartu ez diren erabakien ondorioz. Erregai fosilen amaierarako ibilbide orririk gabe; Parisko akordioaren araudi garapena osatu gabe; larrialdiari aurre egiteko finantzazio nahikorik gabe. Mingarriena, estatu aberatsek hego globalean pairatzen hasiak diren kalteak leuntzeko funts bat sortzeari muzin egitea. Glasgowk Parisko sugarrak piztua jarraitzen ote zuen argitu behar zuen, hots: ea 1,5 graduko langa ez gainditzeko moduko konpromiso lotesleak hartuko ote ziren. Ez du lortu.

Helburu nagusian kale egingo zela jakitun, lider nagusiek lehen egunetan diskurtso loratuak bota, alde egin eta beren delegazioak estatu indartsuen eta fosilen presio taldeen interesen alde borrokatzen utzi zituzten. Erabateko ospegaltzea ekidite aldera, hainbat herrialdek akordio sektorialak bultzatu dituzte, metano isurien inguruan, deforestazioaren inguruan, motore termikodun autoen inguruan eta abar, baina akordio bakoitzak sinatu ez dutenen zerrenda luzeak utzi dizkigu. Agian eramangaitzera, ez dagoela konpromiso lotesle

bat bera ere. Izan ere, hau da klima larrialdiari aurre egiteko nazioarteko sistemaren muina. Borronteazko izaera. Gauzak horrela, arrakala handitzen doa. Arrakala anizkoitza: egin behar denaren eta adierazten denaren artekoa; adierazi eta sinatzen denaren artekoa; sinatu eta benetan egiten denaren artekoa. Eta arrakalaz arrakala, ataka batean gaude.

Nazio Batuetatik eratorritako marko zinismo klimatikoan murgildu dela egiaztatzeak, ordea, ez du aurrez aurre dugun erroka leuntzen. Alderantziz. Guztiok behartzen gaitu egin behar dena eta egiten ari denaren arteko arrakala ixten eta itxi arazten. Aukera-leihoak ixten ari zaigu eta asko eta azkar aldatu ezean, planetaren mugekin hasia den talkak ondorio gordinak izango ditu guztiontzat. Are gehiago, baliabide mugatuak dituen ingurune batean mugarik ez balego bezala jarduten duen sistema sozio-ekonomiko kaltegarri hau eraldatzea saihestezina da. Gainera, gero eta baliabide energetiko eta funtsezko lehengai urriagoko testuinguru batean egin beharko dugu. Klimaren bilakae-
rak iragartzen duen porrot ekologikoa, ematekotan, atzera-bueltarik gabeko kontua den neurrian, itxaropena baino, ekologismoaren loraldi bat behar dugu. Ekin diezaigun. ●

Prest al gara?



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ez dugu erraten ahal Glasgowko COP 26 gailurraren berririk ukan ez dugula: euskal kazetariak han ziren eta bertan nabaritu den tentsioaren neurria ederki partekatu dute gurekin. Eskerrak eman behar dizkiegu. Baina meza kantatu erraldoia ehorzketa baten parekoa izan dela ezin uka, bereziki aldaketa klimatikoaren ondorioak jada pairatzen dituzten herrialdeentzat, Artikako bankisatik Tuvaluko uharteetaraino. Mende hau finitzerakoan, dauden banabesteko tenperaturak, beraz, bi graduz bederen emendatuko dira.

Azken txostena izenpetu duten 200

estatuek ez dute urrats askorik egin, ez dutelako herritarra bere kontsumitzaile konfort-gunetik ateratzeko xederik: autoaren erabilpena drastikoki murriztea aipatzen baldin badute, jendeak oldartuko zaizkie, duela bi urteko Frantziako *gilets jaunes* haien gisara. Bernard Charbonneau handiak, alor horretan jende arrunten eta neo-kapitalisten interesek bat egingo zutela iragarria zuen, eta hori da ikusten ari garena.

Galdera hauxe liteke: prest al gara petrolioz, lur arraroz eta elektrika nuklearrez hazi bizimodu post-industrial honi uko egiteko? ●

'Merketina', gezurrari etekina!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Akaso ez al da egia merketinak sarritan dakarkigun mezuak gezurretik gehiago/gehiegi duela? Eta hori hala izanik ere, legea ez dela justizia bihurtzen, ahal guztidunak ahal gutxidunen kontura, hitz jokoak baliatuz, iruzur egiten ari diren arren?

Auskalo egunean zenbat aldiz irakurtzen edo entzuten dugun: “Zure segurtasuna zaintzen dugu”; “Elkarrizketa hau grabatu egingo dugula jakinarazten dizugu, baina aipatu zereginetarako bakarrik erabiliko dugu”; “Zure telefono zenbakia ausaz aukeratu dugu galdeketa arin bat egiteko... Nongoa zara? Ze ikasketa dituzu? Lanbidea? Nork du etxeko ardura? Lanak erdibana egiten al dituzue?... Nori eman zenion botoa hauteskundeetan? Datozenetan nori eman asmo?”; “Zure atsedena eta arduragure esku. Utzi zure adinekoen zaintza eta zama gure eskuetan”; “Telefonia konpainiatik deitzen dizut eta beste edozein konpainiak baino merkeago egingo dizugu”.

Telefono konpainiak, aseguru etxeak... hasita daude bezeroari urtero joateko beren bulegora esaten eta saia-

Badakit baratzeetan darabiltzagun zenbait produktu ez direla hain bio, baina ez gaitu salbatuko energia nuklearra berdea dela dioen merketinak

tzeko urteko kuota merkatzeko ahaleginean. “Baina hori egingo didazu ni joan beharrik gabe, ezta? Ni betiko bezeroa nauzu!”; “Bai, baina etorri hala ere, bestela agian ezingo dizut merkatu...”; “Zer da hau? Nik ez dut merkeago ezer nahi, horrek esan nahi baitu benetan dagokiona baino gehiago kobratzen ari zaizki-

dala! Esan kosta-preziosa eta horri eutsi ahal den bitartean...”.

Ulertzen dut bezeroak erakartzeko eskaintza ezohikoak egiteko beharra ere: egunkariak Errioxako ardoa saltzen edo, auzolanean euskararen alde, Nafarroako Erriberako baratze produktuak eskaintzen... onartzen dut; eta muinean, ekin-tza hauekin lehen baino hobeto zaintzen direlakoan nago ingurumena eta inguru horietako herritarrak. Munduko beste puntatik ekartzeak kutsatzen duena saihesteko beharra ere hor baitago!

Bizi nahi dut baserrikoa kontsumituz, jarritako prezioan, eta kilo bat sagar erosten badut eta ale bat gehiago eransten badio baserritarrak, biok irabazten dugula eta hurrengoan ere berari erostea nahi duela ulertuko dut. Badakit baratzeetan darabiltzagun zenbait produktu ez direla hain bio, baina ez gaitu salbatuko energia nuklearra berdea dela dioen merketinak, ezta gure dirua jaso eta xentimorik itzuli gabe irabazi galantak dituzten bankuek ere... Eta herrira presaka, galduta iristen diren pakete garraiolariak zer, zeinek sortu ditu? ●





EROSKI

zurekin



Hemengo izatea ona da

Es bueno que sea de aquí

Tokiko 500 ekoizle baino gehiagorekin lan egiten dugu hemengo 2.500 produktutik gora eskaini ahal izateko



Ziurtagiria dugu gure denda guztietan



Info gehiago: www.eroski.es

GUGGENHEIM URDAIBAI PROIEKTUA

Azpiegituraz azpiegitura, porlanezko kultura

1997an iritsi zen Guggenheim Fundazioa Bilbora, itsasadar bete tinta isurarazi duen museo ikonikoaren bitartez. Hamarkada bat inguru geroago, 2008an, Bizkaiko hiriburutik kilometro gutxira beste museo bat zabaltzeko asmoa iragarri zuten; Gernikako itsasadarraren ertzean, zehazki. Proiektuak ez zuen aurrera egin, baina ez da inoiz zeharo baztertu, eta oraintsu, tiraderatik atera dute Guggenheimen arduradunek, itxuraldatuta eta Europako Next Generation diru-funtsei lotuta. Aurten ezagutu dira egitasmo berrituaren nondik norakoak, eta ondotik etorri dira zenbait kritika, zalantza ugari eta funtsezko galdera bat: beharrezkoa ote da?

 UNAI BREA  HODEI TORRES

Solomon R. Guggenheim Fundazioa 1937an sortu zen, arte modernoa sustatzeko xedez. Bere webgunean irakur daitekeenez, hiru museo ditu gaur egun, bana New Yorken, Venezian eta Bilbon, eta abian dago Abu Dhabi laugarrena zabaltzeko egitasmoa. Izan dira beste Guggenheim batzuk, baita beste proiektu batzuk ere, baina itxita daude, edo bertan behera utzita.

Webguneak ez dio ezer Urdaibai inguruan beste museo bat eraikitzeaz, eta ildo berekoa da Bilboko Guggenheim museoaren kudeatzaileek ARGIAren galderari emandako erantzuna: "Oraindik ez dugu ezer iragarri hedabideen aurrean, eta ez daukagu gaiaz ezer esateko". Haatik, ondo ezagunak dira proiektu horren ezaugarri nagusiak. Juan Ignacio Vi-

dartek, Guggenheim Bilbao Museoaren zuzendari nagusiak, ekainean aurkeztu zien egitasmoa bertako patronatuko kideei, eta hedabide gehienek eman zuten horren berri. Era berean, Guggenheimen "zabalkunde ez-jarraitua" –eufemismo hori erabiltzen dute batzuek– Bizkaiko Batzar Nagusietan eztabaidagai izan da hilabeteotan, bertako talde politikoen ordezkariak Juan Ignacio Vidarteren ahotik proiektua ezagutzeko parada izan ostean.

ALDUNDIAREN USTEZ, PROIEKTU ESTRATEGIKOA

Egiten bada, Urdaibaiko Guggenheimek ez du egoitza bakarra edukiko, bi baizik, bata bestetik bost kilometrora: Muruetako ontziola, itsasadarraren ezkerreko ibarrean, eta Dalia enpresaren fabrika

abandonatua, Gernikan. Eraikin berririk ez, hortaz. Gune bien artean dagoen bide berdea ere baliatu nahi dute artelanak jartzeko, bisitaren osagarri. Azpiegitura ontzeko lanek bost urte irautea eta urtero 140.000 bisitari hartzea aurreikusi dute sustatzaileek.

Museo bikoitz berria egiteko aurrekontua 127 milioi eurokoa dela iragarri du Guggenheim Fundazioak. Horietatik, 81 Europako Next Generation funtsetatik lortzea espero dute, eta, dagoeneko, Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunari funts horiei begira aurkeztutako zerrendan dago egitasmoa. Nolanahi den ere, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak adierazi du proiektua "bai edo bai" atera behar dela aurrera, Europako sosekin ala gabe, denbora laburrean ala luzean, "gure lurraldearentzat ona delako".



Zer dio Jaurlaritzak oraingoan?

Bizkaian beste Guggenheim museo bat egiteko asmoa 2008an sortu zen. Edo, behintzat, urte hartan izan genuen herritar arruntok horren berri. Jose Luis Bilbao, garai hartako Bizkaiko ahaldun nagusia, izan zen ideiaren defendatzailearik behinena –proiektua, ia-ia, haren “burutazio pertsonala” zela esan izan da azken hilabeteotako eztabaidetan, aurrekari hura gogora ekartzean–; azkenik, Bilboak ez zuen bere nahia gauzaterik izan, batez ere Eusko Jaurlaritzak uko egin ziolako proiektuaren finantzazioan parte hartzeari. Hasiere batean, Ibarretxe lehendakariaren administrazioa uzkur agertu zelako egitasmoa babes-teko unean, eta 2009tik aurrera, Lakuak zeharo itxi zuelako balizko diruaren txorrota, Patxi Lopez Ajuria Eneko maizter bihurtuta.

Bigarren saiakera aurrera ateratzeko, COVID-19aren ostean Europar Batasunak martxan ipini dituen Next Generation dirufuntsen esperoan da Guggenheim Fundazioa. Eta iritsiko ez balira, zer? Esan dugunez, oraingoz isilik daude proiektuaren sustatzaileak, eta ez dago ziurtasunez jakiterik Europako dirurik gabe hari uko egingo ote lioketen, Unai Rementeria ahaldun nagusiak nahitaez egin beharrekoa dela esanagatik. Eusko Jaurlaritzak, berriz, zuhurtzia agertu du gaiaz galdetu zaionean, Bingen Zupiria bozeramalearen ahotik: “Lehenengo eta behin, jakin behar da ea Guggenheimnek aukera izango duen Europako funtsak jasotzeko, eta proiektua puntuz puntu zehaztea ere falta da. Kasuan-kasuan, hurrengo hilabeteetan ikusi beharko da proiektuetako zeintzuek egingo duten aurrera eta zeintzuek ez”. Beste behin ere, Gasteizko haize hotzak epeldu dezake bizkaitarren kemena.

BESTE “EDUKIONTZI” BAT

“Ez al ditu gure kultur arloak presazkoagoak diren beharrak?”, galdetu zuen Haizea Barcenilla EHUko Arte Ederren Fakultateko irakasleak, ekainaren 23an *Berrian* argitaratutako iritzi artikulua batean. Goiburua, ezin adierazgarriagoa: “Diru publikorik ez Urdaibaiko Guggenheimi”. “Ez al dugu ikusi itxialdiarekin –zioen Barcenillak– erabat zaurgarriak diren gure sortzaileak ezer gabe geratu direla, ez baitago euren lana normalizatzen duen sistema fiskalik? Askoz logikoagoa litzateke Europako funtsak sistema honen azterketa sakon bat eta oinarritzko berrantolaketa bat bideratzeko erabiltzea”.

Iritzi berekoa da Barcenillaren lankide Ismael Manterola: “Esango nuke ez dela oso momentu egokia kultur aurrekontuak horrelako kultur azpiegitura handietan gastatzeko, nahikoak ditugu herri txiki honetan”. Hain zuzen ere, Bilboko Guggenheim inauguratu zeneko unea dakar gogora Manterolak: “1997an ireki zen, eta, ordutik hona, Artium, Tabakalera... Edukiontziz ongi hornituta gaude. Beste bat gehiegizkoa litzateke, nire ustez”.

Edukiontziei baino gehiago, edukiei arreta emateko garaia dela dio arte ederretako irakasleak. “Programazioak, bildumak... Horiei eman behar zaie lehenetasuna, gaur egungo desoreka konpontzeko, politikariei ahaztu egiten baitzaie edukiontzia bete egin behar direla, eta horrek ere aurrekontua behar duela”. Ez azpiegiturak mantentzearena bezain handia, Manterolaren esanetan: “Kalkulatzen da %70 gastatzen dela azpiegiturak mantentzen eta %30 besterik ez edukietan”.

Arestian aipatutako iritzi artikuluan Haizea Barcenilla emandako datuaren arabera, “Artium museoak, adibidez, 151.657 euro behar izan zituen 2019an, hornikuntza gastuetarako soilik; atea ireki eta argia pizteko, alegia”. Haren ustez, azpiegitura handiek erabat baldintzatzen dituzte kultur aurrekontuak, gastu finko eta saihestezina dakartelako. “Zeinek mantenduko luke Urdaibaiko Guggenheim?”.

KULTURA ALA TURISMOA?

“Proiektu honen alde gaude, biribila delako. Laguntza ematen dio kulturari, sortzaile gazteei batez ere, artearen munduan erreferentziazkoa den marka baten babespean”, esan zuen Unai Rementeria ahaldun nagusiak ekaina-



ren 30ean, Bizkaiko Batzar Nagusietan izandako saioan. Ismael Manterola ez dator Rementeriarren hitzekin bat: “Guggenheim proiektuak hutsune asko dauka, eta ez dira beteko beste Guggenheim baten bitartez. Frankiziak ez du komunikaziorik tokiko sarearekin, erakusketak ez dira bertan sortuak, kanpotik ekarriak baino... Hori dena bikoiztu behar al dugu?”.

Haizea Barcenillaren berbetan, “bada urteak azpiegitura nagusiak eta proiektu estrategikoak planteatzean ez dela pentsatzen ez euskal hartzaileetan, ez bertako kultur zaleetan, ezta kultur transmisioan ere. Turistentzako amuetan pentsatzen da”. Bizkaiko Foru Aldundiak, “turismo” berba aipatu gabe, Urdaibaiko Guggenheim egitasmoa defendatzen du, besteak beste Busturialdeko jarduera ekonomikoa sendotzen lagunduko duelako, baina horrekiko eszeptikoak dira oposizioko taldeak.

“Inozoa iruditzen zaigu Urdaibaiko Guggenheimek Bilbokoak bezain eragin handia izango duela pentsatzea”, dio Hector Fernández Elkarrekin Podemoseko batzarkideak; “eta, bestalde, ez



dugu uste alde ekonomikotik Bilbokoak hainbesteko aberastasuna ekarri duenik; ospea bai, hori ukaezina da”.

KONTROLA, NOREN ESKU?

“Nahiago genituzkeen beste mota bateko egitasmoak”, aldarrikatu du Fernándeze, “irekiagoak, sakabanatuagoak, txikiagoak... Halakoak bideratu litezke Bizkaian kultura sustatzeko Europako diruarekin, diru hori iritsiz gero”. Hain zuzen ere, Next Generation funtsen

hauspoa gutxien behar duenari emango zaiola uste du Podemoseko kideak, Haizea Barcenillak eta Ismael Manterolak adierazitako ildotik. “Guggenheim nekez izango da Busturialdeko eskualdearen arazoaren konponbidea. Eta diru hori ez da joango kulturaren eremura, turismoarenera baizik”.

Proiektua egin egingo dela uste du Héctor Fernándeze. “Erabakimena dutenek hala erabaki dute dagoeneko, eta aurrera joango da, baina behintzat,

museo berriaren kontrola, ahalik eta neurririk handienean, publikoa izatea nahi genuke, ondo baitakigu, praktikan, zer esan nahi duten hainbeste goratzen diren lankidetzak publiko-pribatuek: herrialdea enpresen esku uztea”. Ildo horretan, Elkarrekin Podemosek mozioa ipini zuen Bizkaiko Batzar Nagusietan, joan den uztailan, hiru gauza eskatuz: Urdaibaiko Guggenheim BizkaikOA sozietate publikoaren barruan txertatzea; proiektuaren arlo akademikoa kudeatzearen ardura EHUK izatea eskusiban; eta Busturialdeko udal guztiek egitasmoari buruzko erabakietan parte hartzea erraztea.

Gainerako indar politiko guztiek mozioaren aurka bozkatu zuten, arrazoi desberdinengatik bada ere, eta, kasu batzuetan, punturen batekin ados egon arren. EAJk, zehazki, kontrol publikoa eta udalen parte-hartzea berez bermatuta daudela dio; alde batetik, museoaren bi egoitzak kokatu nahi dituzten eraikinetan egin beharreko esku-hartzeak Murueta eta Gernikako agintarien baimenen menpekoak izango direlako. Bide batez esateko, udal biak –jeltzaleen esku biak ere– proiektuaren alde azaldu dira dagoeneko.

Bestalde, bi guneak lotuko dituen bideaz den bezainbatean, bai EAJk bai Bizkaiko Aldundiak berak gogorarazten dute bertan egitekoa den edozerk behar duela Urdaibaiko Biosferaren Erreserba kudeatzen duen patronatuaren onespenean, eta eskualdeko udalak ordezkatuta daudela erakunde horretan. Momentuz, mutu dago patronatua, Guggenheimek proiektu zehatz bat mahai gainean noiz jarriko zain.

ETA INGURUMENAREN BABESA?

Gehiago nahi du Bizkaiko oposizio politikoak. Héctor Fernándezen esanetan,

Euskaraz hezi, euskaraz bizi!



eskualdean egitasmoari buruzko erreferendum lotesle bat egin dadin eskatzeko asmoa du bere talde politikoak. EH Bilduk berriz, udalek ez ezik Busturialdeko eragile sozial guztiek ere eztabaidan parte hartzeko mekanismoak galdatu ditu. “Nork erabaki du bizpahiru Guggenheim behar direla, eta ‘bai ala bai’ egin behar direla?”, galdetu zuen Iratxe Arriola talde horretako batzarkideak, uztailean egindako eztabaidan; “erabakia Urdaibai-Busturialdetik kilometro askora hartu dela dirudi, Biosferaren Erreserba batean bultzatu behar den garapen-eredua ere kontuan hartu barik”.

“Gutxienez, eskualdean benetako eztabaida bultzatu beharko litzateke zer garapen mota nahi dugun jakiteko”, gaineratu zuen Arriolak. EH Bilduko ordezkaria kezu zen, azken hamarkadetan Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren kudeaketak ez duelako bat egin haren printzipioekin. “Eta orain Guggenheimekin zatozte”, leporatu zien Aldundia sostengatzen duten alderdiei, “masa turismoaz hitz egitera”.

Aldundiak argudiatu du Urdaibaiko Guggenheimek ez diola ingurumenari kalterik egingo. Are gehiago, proiektuak Biosferaren Erreserbaren babes-maila handituko duela adierazi zuen Unai Rementeriak Batzar Nagusietako ekaineko saioan. “Zelan? Besteak beste, gaur egun Erreserbaren bihotzean egiten diren jarduera industrialak ateraz bertatik”, esan zuen ahaldu nagusiak; “Muruetako ontziola eraikin ikoniko bihurtuz, Daliaren aurriak berreskuratuz...”. Ontziolari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak esan du hura geldiarazteak ez duela ondorio kaltegarriak izango ekonomiaren ikuspuntutik, ia ekoizpen guztia Erandioko egoitzara eraman baitu enpresak.

Proiektuaren xehetasunak ezagutarazi ez badira ere, dagoeneko iraga-



rrita dago museoaren egoitza batetik besterako bidea oinez, bizikletaz edo ibilgailu elektrikoaz egin beharko dutela bisitariak, haien kopurua mugatu egingo dela, eta, agian, urteko sasoi jakinetan baino ez direla zabalduko ateak, Muruetako egoitzan behinik behin. Hau da, Gernikako itsasadarraren ertz-ertzean. Hori ere azpimarratu zuen Unai Rementeriak, Guggenheim Urdaibaik ingurumenarenganako begirunea izango duela aldarrikatzeko. Beste batzuentzat, kontuak ez daude hain garbi. Milaka bisitari erakartzeak izan ditzakeen ondorioez gain, egitasmo osoa Biosferaren

Erreserbaren babes handieneko gunean dagoela oroitarazi du Zain Dezagun Urdaibai talde ekologistako kide Erroxeli Ojinagak. Hain zuzen ere, nukleo-gune deritzonetako batean. Biosferaren Erreserbaren webgunean irakur daitekeenez, hor daude ekosistemarik hauskorrak, eta ingurune naturalaren babes lehenetsuneko da eremuotan. Bestela esanda, ekosistema horien kontserbazioa kolokan jartzen ez duten jarduerak besterik ez daude baimenduta, teoriarik, Guggenheimek zabalkunderako hautatu duen lekuan. Ea nola eramaten den hori praktikara. ●

Tinko
euskara elkartea

2021/2022 ikasturteko programazioa ikastetxeentzat

Filmen eskaera egiteko:
tinkoeuskara.eus 943 310 036

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2021

IRUÑEA

Azaroak 28, igandea
17:00etan, Anaitasuna Kiroldegian

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus atarian

FINALA



Eneko Fernandez Maritxalar, Eneko Lazkoz Martinez, Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri,
Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Xabat Illarregi Marzol eta Xabier Silveira Etxeberria

Gai-jartzaileak: Alaitz Rekondo Ferrero eta Ander Aranburu Arriola

Antolatzailea



www.bertsosarrerak.eus

Laguntzailea



“ ”

Preso sozial eta politikoen arteko zubiei balioa ematen die Santi Cobosek

Zigor Olabarria Oleaga

Txori urdinak liburuaren egilea

Santi Cobos Fernándezek (Leon, Gaztela, 1968) 25 urte eman ditu preso, bere bizitzaren erdia. Erreformatorioa, adingabeentzako espetxea, adin nagusientzako. Urterik gehienak FIES preso bezala sailkatuta, muturreko isolamendu eta tratu txar baldintzetan. Bere bizipenak *Txori urdinak* liburuan jaso ditu ARGIAko kazetari Zigor Olabarriak, espetxe sistema eta zigorraren kultura jo-puntuak dituen kontakizuna osatzeko.

Hainbat alditan saiatu da ihes egiten Cobos: atetik, murrutik, teilatutik, epaitegitik, espetxezainak edo poliziak bahituta. Bidean adiskidetasun handia egin du euskal preso politikoekin, irakurlea jabetuko denez. 2011n baldintzapeko askatasunean irten zen, baina 2021eko ekainean espetxeratu zuten berriro, taberna baten kanpoaldean izandako ezusteko liskar baten ondorioz. Espetxeko bizipenak lehen pertsona kontakatu ditu ARGIAk plazaratutako liburuan.

Santi Cobosen bizipenetatik abiatuta, espetxe sistemaren erretratu gordina egiten du liburuak.

Hain justu, Santi Cobosek kartzelan bizi izandakoak oinarri hartuta, espetxe sistemaren inguruko hausnarketak biltzea zen nire asmoa, beharrezkoa ikusten baitut gaiaren bueltan gehiago sakontzea. Salhaketa elkartearen eta euskal preso politikoen aldeko elkarteetan aritu naiz lanean, gaiaren inguruan badut nolabaiteko sentsibilitatea. Beti sentitu izan dut preso sozialen eta politikoen arteko zubiak edo harremanak behar baino txikiagoak zirela, edo ez direla azaleratu. Zubi horiez ere hitz egin du Cobosek liburuan.

Preso sozial eta politikoa aipatu dituzu. Gurean, ziurrenik, ezagunagoak dira bigarren horien bizipen eta aldarrikapenak.

Hala da. Euskal Herrian espetxea oso presente dago, baina gehienetan ari gara preso politikoa barnebiltzen dituenaz, “gure espetxea” dei dakiokkeen horri buruz. Preso “arruntak” eta “sozialak” errealitatea ez da hain ezaguna. “Preso sozial” terminoa 1980ko hamarkadan sortu zuen Espainiako Estatuko COPEL preso kolektiboak, “preso arrunt” termino despolitizatua gainditzeko. “Preso sozialak gara, gu kartzelan egoteak jatorri soziala du”, zioten. Zentzu politikoa eman zioten preso egoteari. Denbora pasa da ordutik, baina oraindik ere badago nolabaiteko sentsibilitate falta espetxean dagoen jendearekiko, egin duen delitua eginda ere. Espetxea da pertsonak txikitzeko zentro bat.

Liburuaren hasieran, hain justu, bere jatorriaz mintzo da Cobos.

Parte horrek laguntzen du, batetik, Santi nor den ikusarazten. Bestetik, badira beste preso sozial batzuen bizipenak jaso dituzten liburuak, Xosé Tarrío galiziarren *Huye, hombre, huye* eta Ángel ‘Patxi’ Zamoro katalanaren *A ambos lados del muro* esaterako, horiek ere FIESak izandakoak, ihesaldiak eta mutinak egindakoak, funtzionario eta epaileak bahitu dituztenak eta kartzelaldi oso gogorrak bizitakoak; adierazgarria da guztiak direla gizarte klase apalekoak. Espetxe sistema ulertzeko, hori kontatzea funtsezkoa zen.

Kartzelaldi gogorrek jasan dituztela esan duzu, baina Cobosek ere...

Bere historia pertsonala, historia kolektibo baten parte da. 1990eko hamarkadaren hasieran, hartu zituzten 60-80 preso inguru, bereziki liskartsuak zirenak, ihesaldiak edo mutinak antolatuta zituztenak, eta hainbat neurri ezarri zizkieten. Horiek dira FIES bezala ezagutzen direnak, nahiz eta FIES juridikoki beste zerbait izan. Isolamendu lazgarria eta tortura izugarriak jasan zituzten. Gehienak espetxean bertan hil dira gaixo, ero edo beren buruaz beste eginda. Sentsazioa dut bizirik iraun dutenak izan direla gehien politizatu direnak, jasandakoari zergati politikoa bat bilatu diotenak. Hor koka dezakegu Santi. Horren harira, kontatzen du preso politikoekin egin duen harremanak lagundu diola instintiboki bizi zuenari azalpen politikoa ematen. Konturatu zen bizitzen ari zenak bazuela esfera ez hain pertsonal bat, sozio-politikoa baizik.

“ ”

Espetxea gizartearen isla da. Kalean gaudenok ere jarrera ‘adaptatibo’ berberak ditugu, ez dezagun pentsatu presoak baino hobeagoak garenik

Deigarria da zein inpunitate duten espetxe-sistema betiketzen dutenek, presoei sekulakoak eginda ere.

Hainbat presorekin hitz egin izan dut gaiaren bueltan, ezagutzen nituen historia oso gordinak, baina Santi hasi zitzaizdanean kontatzen adingabeen kartzelan, isolamenduan edo erreformatorioan bizitakoak... tripak nahasten zizkidan. Funtzionarioen artean-eta badira salbuespenak, eta berak aitortza egiten die liburuan, baina... Begira medikuak ere, nola bihurtzen diren sistemaren parte. Eta Santik, uneoro biktima bezala agertu gabe, kontatzen ditu berak egindakoak ere, eragindako mina, baina era berean zera dio liburuan: “Nik askatasuna lortzeko egiten nuen hori guztia. Eta bestetik, nik esaten nien funtzionarioei, nik egindakoak, ihesaldi saiakerak, bahike-

tak, mutinak... horiek guztiak ordaintzen ari nintzela, baina nik sufritutako tortura eta tratatu txarreatatik, medikuek esatea funtzionarioei ni hil gabe nola kolpatu... horrelakoengatik inork ez duela ordaintzen”. Sistemaren logika hori da.

Liburua errematatze kartzelara joan behar izan duzu Cobos bisitatzerara.

Bai, elkarrizketa gehienak bera kalean zegoela grabatu genituen, 2020ko udazkenean, baina pasa den ekainean espetxean sartu zuten berriro ustekabeen. Valentzian lehenengo, Zaballan orain, bisita pareta egin diot, eta gutunak trukatu ditugu liburuaren eta aurkezpenaren inguruko xehetasunak adosteko.

Birgizarteratzea omen helburu.

Espetxearen diskurtsoan maiz agertzen da hitz hori, bere izatea justifikatzeko. Zigorraz hitz egiten da, baina esaten di-

gute delitua egin duenak gizarteratze arazo bat duela, ez dituela jendartearen kodeak ulertzen edo onartzen, ez dagoe la integratua, izan drogengatik, diru kontuengatik edo izan jendartearekin bat ez datozen baloreak dituelako. Oso kontraesankorra da planteamendua bera, zeren eta esaten duzu pertsona batek gizarteratze arazoak dituela, eta era berean zigor moduan jendartetik isolatzen duzu. Sartzen duzu espazio batean non bizitzeko arauak kanpokoan erabat kontrakoak diren, zeinak infantilizatu egiten zaituen. Zenbat eta jendarteratze arazo handiagoa, zigor handiagoa, jendartetik kanpo denbora gehiago. Teorian birgizarteratzea du helburu, baina kontrakoa gertatzen da. Ekonomikoki zaurgarriago uzten zaitu, mozten dizkizu harremanak familiarekin, lagunekin... Zentzugabea da. Jende gehienak onartzen du kartzela kartzela denetik porrot bat dela birgizarteratzeari edota delituak berriro ez



egiteari dagokionez, baina inork ez du auzitan jartzen.


Cobosek liburuan kontatzen dituen bizipen batzuk aletzearren, film batetik ateratakoak dirudite ihesaldiek, jasandako torturek...

Liburuan, batetik, kontatzen ditu gauza oso deigarriak, ikusgarriak. Niretzat, adingabeen garaia, erreformatorioa, modulu psikiatrikoa... hori guztia beldurgarria da. Edo Zamorako funtzionarioa bahitu zutenekoa ihes egiteko, Gijongo epaitegian tiroketa (non polizia bat hil zuten, eta polizia haiek zauritu zituzten)...

Badira pasarte oso odoltsuak, nolabait esatearren, jasaten dituen tortura eta tratu txarrak astakeria dira. Horiez guztiez gain, kontatzen du zer den FIES fitxategia, zer den egunak pasatzea isolamenduan, patio orduarik gabe... Baita ere, espetxetik irteteko unea iristen denean, presoak biziraun ahal izateko bere egin dituen biolentziagorrotoko erreminta horiek alboratzeko egin beharreko prozesua nolakoa den; edo umore ukituko beste batzuk, Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskal batekin izan zuen solasaldia kasu. Zelula anarkista bat osatzea leporatu zieten Cobosi eta beste kide bati, ez hanka ez buru, fiskalarekin duen elkarrizketa surrealista da erabat. Hausnarketarako lekua ere badago liburuan, ez soilik diskurtso politiko jasoarekin, baizik eta zer gertatzen den kartzelan sexualitatearekin, zentzumenekin, sentimenduekin...

Espetxe barruan bizirauteko, "ehizaki ez baizik eta predatzaile izan behar du presoak".

Hori dio berak, edo ehizakia zara, edo predatzailea. Batetik, demonstratu behar duzu predatzailea zarela, inork zure aurka ez egiteko. Baina bestetik, horrek -eta jipoiek, bakartzeak...- gorrotoa pizten du zugan, eramaten zaitu biolentzia helduleku bezala hartzera, eta ahalegin du behar duzu horretara ez mugatzen, kideen arteko elkartasunari eta balore batzuei eusten, samur jokatzeko... espetxearen produktu ez bihurtzeko. Tentsio horrekin du lotura Txori Urdinak tituluak, elkarrizketa batean errezitatu



SANTI COBOSEK UTZIA

zidan Bukowskiren poema batetik hartua: nola gogortu biziraun ahal izateko, aldi berean samurtasunari uko egin gabe.

Baina espetxea gizartearen isla besterik ez da, muturragokoa baina fidela. Ehizaki edo predatzaile izatea, egunerokotasuna bizigarri egiteko pobrezia- ren edo injustiziaren aurrean sentsibilitatea kamustu beharra, gorrotoa eta biolentzia baliatzea, goikoaren aurka egin ordez ondokoaren aurka egitea... Kanean aske -edo, Sarrik zioen moduan, kartzela handian- bizi garenok ere jarrerara "adaptatibo" berberak ditugu, ez dezagun

pentsatu presoak baino hobetoak garenik. Interesgarria litzateke Santiren lekukotasuna ispilu baten gisara irakurtzea.

Kartzelan kontsumitzen den droga legalen kopuru handiaz luze hitz egiten du.

Nik preso askori entzun diot zelda bakoitzean telebista sartzea eta droga legalen kontsumoa bultzatzea (Trankimazin-eta) izan zela haien arteko zaintza edo elkartasuna deuseztatu eta gatazkak desagerarazteko modua.

Otxoa de Retana eta Gorka Lazkano preso politiko ohiek idatzi dute hitzaurrea, Salhaketak hitzostea... Liburu hein batean kolektiboa da, protagonistak nagusia Santi Cobos den arren.

Santiren baloreetako bat den heinean, polita iruditzen zitzaidan preso politikoaren eta sozialen arteko zubi modukoa osatzea. Gainera, niri, pertsonalki, erdigunean espetxea dagoenez, ilusio berezia egiten zidan espetxetik sortua izateak. Horregatik ekarri dugu liburura Itziar Moreno presoak egindako ilustrazioa ere. Nire lana izan da Santiren ahotsa ordenatzea. Askotan gertatzen da hitz egiten dugula zuriok arrazializatuen inguruan... eta kasu honetan, kanean gaudenok espetxeaz. Hori ahal bezainbat saihestu nahi nuen. ●



SANTI COBOSEK UTZIA

“ ”

Barrenak husteko beharra nuen, espetxe-sistemaren mozala hainbeste urtetan jantzita izan ondoren

Santi Cobos

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Lehenago ere proposatu izan dizute liburu batean zure bizitzaren gorabeherak jasotzea. Zergatik orain? Zein da zure motibazioa?

Bai, hainbat aldiz proposatu didate. Baiezkoa emateko arrazoi nagusietako ba izan da grabatutako elkarrizketen bidez egiteko aukera –zure martiriorako, dena entzun eta transkribatu behar izan duzu-eta-. Espetxealdiaren hamabosgarren urtetik aurrera, asko eta asko idatzi ostean, boligrafoari ezinikusia hartzen hasi nintzaion, eta egia esan oraindik ere ez naiz berradiskidetu berarekin.

Barrenak husteko beharra eta desioa dut, espetxe-sistemaren mozala hainbeste urtetan jantzita izan ondoren. Liburuan salatzen ditudan gauzetako asko epaitegietan azaldu eta salatu nituen aspaldi, asko artxibatu egin zituzten inor zigortu gabe, gehienetan erantzunik ere ez nuen jaso. Beren bizipenak liburura eraman dituzten kide presoek zerrendari ekarpena egin nahi izan diot. Liburu horiek irakurritara argi geratzen da presondegiak ez direla beren kudeatzaileek saltzen diguten bost izarreko hotelak.

Espetxeaz eta bizitakoaz hitz egin izan didazu gorrotok eta gordin, baina baita umorez ere, edota hausnarketa sozial eta politikoak ginez...

Azken batean espetxea ez baita ideien mundua, bizitza errealitate bat baizik, nire kasuan urte askotakoa, eta horrek bizipen asko eta askotarikoetarako ematen du. Zenbait presorentzat espetxeak nik ematen diodanaren oso bestelako zentzua du. Sinesteko zaila eman dezake, baina espetxeak ohiturak eta “erosotasunak” sortu ditzake ere. Tamalez edo zorionez, ez naiz horrela bizitzeko gai izan inoiz, eta garesti ordaindu dut.

Gaztelako Leon hirian jaio zinen. Zein da zure lotura Euskal Herriarekin?

Kariño handikoa. Euskal preso politikoe-

kin adiskidetasuna egin nuen espetxean. Behin kalean, beste toki askotan aurkitzen zailak diren kariñoa eta ulerkortasuna jaso ditut hemen. Preso egon izanaren estigma oso erreala da, baina Euskal Herrian, kontrara, lagundua eta babestua sentitu naiz. Nire lur kuttuna da, ondo sentiarazten nau, lagunak ditut bertan, bereziki Gasteizen. Horregatik ere beren hizkuntza ikasi nahia.

Zure bizitza kontatzeaz harago espetxe-sistemaren inguruan hausnarketa bultzatu nahi duzu liburuarekin. Horregatik nahi zenuen ere EAEk espetxeen transferentzia jaso duen testuinguru honetan argitaratzea. Hobekuntzarik espero duzu? Bada alternatibarik espetxeari?

Egia esan, eta esamesak gorabehera, ez dut aldaketa esanguratsurik espero. Espetxean eskubideak murrizteko orduan dagoen erregulazio faltak asko arduratzen nau. Ikusten ari naizenez, COVID-19a txeke zuria bilakatu da hemen bizitzera behartuta gaudenoi dauzkagun eskubide gutxiak are gehiago murrizteko. Ea behintzat hori guztia nolabait konpentsatzen den baimenak, baldintzapeko askatasunak edo hirugarren graduak gehiago sustatuz.

Liburuaren protagonista zara, baina ezin izango zara aurkezpenean fisikoki egon. Pena ematen dizu?

Egia esan amorru handia ematen dit, besteren artean bertan egongo nintzela uste nuelako, eta ez hemen giltzapetuta. Exijitzen dut, hori bai, egiten den guztia mahats eta garagar zukuz eta jaki egokiz lagunduta egotea. Eta eguna ez baliatzea ni gabe orgia gogoangarri bat egiteko –nahiz eta, Euskal Herrian izanik...-. Elkartasun besarkada estua guztientzat, osasuna eta askatasuna! ●



Aurkezpenean zuzenean entzungo da Zaballan

Larunbat honetan, hilak 27, aurkeztuko da *Txori urdinak* liburua, Gasteizko Hala Bedi irratiaaren lokalean eguerdiko 12:00etan. Zigor Olabarria kazetariarekin batera, Santi Cobosen arreba Silviak hartuko du hitza. Santi beraren ahotsa ere entzungo da, grabazio baten bitartez. Aurkezpen ekitaldia zuzenean emitituko du Hala Bedi, eta Zaballako espetxean dauden presoek, Santik tartean, saioa entzun ahal izango dute. Ostean, mokadutxoia eta “marianito musikatua” izango dira Gaztetxean, Ziklone taldearekin.

SOSH

HERRI BAT GERRAREN ETA BAKEAREN ARTEAN

Hona hemen Shosh, Karabakh Garaia (armenieraz, Artsakh) eskualdeko herria, gaur egun armeniarren eta azerbaijandarren arteko muga berrian kokatuta. Bertako herritarrek etsaiaren mugimenduak begi-bistan dauzkate balkoietara ateraz gero. Duela urtebete hasi zen gerran galdutakoaren oroigarri gordina.

 LILIT SHAHVERDYAN

2020ko irailaren 27an, Karabakh Garaiko errepublikaren aurkako eraso handi bati ekin zion Azerbaijanek, eta horrela Sobietar Batasunaren garaietatik konpondu gabe dagoen lurralde-gatazka berpiztu. Azaroaren 11n, bi aldeek su-etena sinatu zuten, Errusiaren bitartekotza-lanen medioz.

Gerra hasi aurretik, 621 lagun bizi ziren Shosh herrian. Udalaren arabera, gaur egun 480 lagun bizi dira, eta haietako 37 errefuxiatuak dira, Artsakheko lurralde okupatuetatik etorriak. Shoshen bonbardaketa gogorak jasan behar izan ditu, bai Karabakheko lehen gerran (1991-1994), bai 2020koan. Andreas Margaryan, 64 urteko gizona, herriko alkatea izan zen sobietar garaian; egun, nekazaritzan eta erlezaintzan aritzen da. Birritan berreraiki du bere 150 urteko harrizko etxea, eta irmoki dio berriz ere egiteko prest dagoela, bere seme-alabei zor dien ondasuna baita.

“Denok dugu geure eginbeharra herri honetan. Ez baduzu egitekorik, ez zara komunitatearen parte”, dio behin eta berriaz Margaryanek. Arbasoen etxea ater-

pe daukan bitartean, tinko eusten dio Shoshen onerako lanari, eta bere onena eskaintzen du.

Shosheko umeak inguruan daukaten arriskuaren jabe dira dagoeneko, eta ez diote beren eginbeharrekoari iskin egiten. 2020ko irailaren 27ko goiz hura ez zen beldurrezko filmen modukoa izan Artyomentzat, gauza berria eta ohiz kanpokoa baizik: tiro-hotsak aditu zituen eta sutan zegoen material militarren kea ikusi. Artyomek 10 urte ditu, baina bere irudimenean iragan mendeetako soldadu baten gisakoa du bere burua. Zorigaitzeko irailaren 27 hartan, beldurrak ez zuen Artyom hartu: erasopean zegoen ondoko herri batera familiaren behien bila joan zen, berarentzako babeslekua topatu baino lehen.

XIX. mendearen erditik, Suren Babayanen arbasoak herrian bizi izan dira. Babayanek sei hamarkada eman ditu Shoshen alde lanean, gerrara birritan joan da, eta denetariko bizipenak dauka: harreman oneko garaiak azerbaijandarrekin, hurrengo bonbak bere etxea joko ote duen beldurra... Larreak

eta abereak galdu ditu, senideak zein adiskideak; baina bizilagunak oraindik haien lurren jabe direnez, itxaropena ez zaio erabat agortu. Herria berpizten hasi da aurreko gerran bonbardaketa latzak jasan ondoren. Kalteak apurka-apurka konpontzen ari dira estatuaren laguntzei esker, herriko jendea bere txokora itzuli da eta bakoitzak bizitzaren ohiko erritmoari heldu dio berriz. Hala ere, Surenen esanetan, laino artean dago bazter txiki honen etorkizuna.

“Adineko gizona naiz eta denetarik ulertzeko gai naiz”, dio Babayanek, “baina nolatan eduki ote dezaketek gazteek itxaropenik etorkizunean beren lurak etsaiaren esku badaude? Ez gara geure etorkizunaren jabe. Argitu gabeko kontu lausoa dugu etorkizuna”.

Armeniako Errepublikak 95.000 milioi dram (175 milioi euro) eskaini ditu Karabakh Garaiko krisia gainditzeko. Horietatik, 3.600 milioi dram (6,7 milioi euro) ekonomia garatzeko inbertituko dira. Armen Tovmasyan Karabakh Garaiko ekonomia-ministroaren arabera, ekonomiaren sektore guztiak



Goian, Samvel Babayan familiako zuhaitz genealogikoarekin. Babayanek dio gerra pasa zuela sofa horretan eserita, etxean bonba noiz eroriko zain. Behean, Andreas Margaryanen bi biloba. Bere etxea noiz berreraikiko irrikaz dago, umeak baldintza onetan haz daitezen. Teilatua hondatuta dago, eta laster konponduko dute.



gainbeheran daude, etxegintza izan ezik. Azken alor horrek %106ko igoera izan du, gerrak nonahi suntsitu duena konpontzeko ahaleginen esker. Shosheko azpiegiturek kalte handia jasan zuten, eta herrian berreraiketa lanak aribidean daude, gerrak hondatutako 150 eraikinak konpondu arte.

Shoshek nekazaritzarako lursailak galdu ditu: ezin dira abereak larratu, muga gurutzatzea arriskutsua baita. Udalak dioenez, 2021eko ekainean, lapurtutako bi zaldi berreskuratuz zituzten, errusiarren bitartez egindako negoziaketei esker. Gerora, ordea, azerbaijandarrek beste lau zaldi ostu zituzten. Bestetik, Shoshetik gertu egindako operazio militarrengatik herriko zazpi gizon hil ziren, udalaren arabera.

Gaur egun, herriak ez dauka arazo handirik argindarrarekin eta ur korrontearekin, baina ezin da ziurtatu etorkizunean hala jarraituko duenik. Arayik Harutyunyan Karabakh Garaiko lehen-dakariak adierazi du estatuak nekazaritza sustatzeko proiektu berriak abian dituela; gehienbat, lursailak banatu nahi dituzte nekazariak aritu ahal izateko. Abereen kopurua handitzeko ahalegin handiak egin dituzte: gobernuak 10.767 animalia eman dizkio Shosh herria barne hartzen duen Shushi eskualdeari. Karabakh Garaiko Errepublikako ekonomia-ministroaren arabera, gobernuak ganadua erregulatzeko eta larreak kudeatzeko programak ere jarri ditu abian Shoshen eta beste herritan.

Bizilagun guztiek ez zuten berdin jokatu gerra bitartean: emakumeak, adinekoak eta umeak Armeniara joan ziren, behin-behineko aterpe bila. Gizonek, ordea, beren etxeen defentsa lehenezi zuten. Amnistia Internazionalaren txosten ofizial baten arabera, Armeniak 109.000 errefuxiatu eta asilo-eskatzaille inguru hartu zituen 2020ko urriarte. 2021eko maiatzean, 37.700 ziren oraindik.

Babayanek eta Margaryanek ahal zuten guztia egin zuten herriaren egonkortasuna mantentzeko Azerbaijango artilleriak etengabe bombardatzen zuen bitartean. Semeak frontean zeudela, Margaryanek militarrek hornitzeko lanetan laguntzen zuen herriko bizilagunek osatutako soldadu taldearekin batera. Aberriaren aldeko konpromisoa hartzearen garrantzia nabarmendu nahian, film bateko esaldi bat aipatu digu: “Azkenean, denok hilko gara, baina inbidia izango diegu aberria babesteaga-



tik erori zirenei. Askatasunaren alde hiltzea, heriotza santua da”. Margaryanek Shosh defendatzeko konpromiso irmoa erakutsi digu, herritarrek erakusten duten lanerako prestutasunak elkar animatzeko balio baitie. “Nire bilobak etxe honetan biziko dira haien segurtasuna bermatzeko gai naizen bitartean”, diosku, beste askoren iritziaren antzera.

Soldadu izateko amets egiten duen bitartean, Artyom gurasoekin, aitona-amonekin eta lehengusu txikiekin batera bizi da. Amonak, Julietta Grigoryanek, 59 urte ditu eta herriko ikastetxean garbitzaile egiten du lan. Gerra bitartean herritik kanpo egon zen, bere koinata erditzeaz zegoela eta. Armenian, Masis herrian, aterpe hartu zuten, eta han jaiotzen umea. Masisen igarotako egunak atseginez gogoratzen ditu, harrera adikorra egin baitzioten. “Gure auzokoak yezidiak ziren”, gogoratu du, “eta ostiralero jakiak ematen zizkiguten: okela, kafea, eta azukrea. Den-dena pertekatu zuten gurekin”.

Bizi baldintza egokirik ez izan arren, Julieta familia su-etena eta gutxira itzuli zen herrira, ume jaioberriarekin batera. Estatuaren eta zenbait nazioarteko GKEren laguntza jaso dute –besteak beste, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearena–, baina familiak oraindik mehatxua gertu sentitzen du, Azerbaijango soldaduak leihotik ikusgai diren heinean. Herritarrek abereengatik kezkatuta daude, herriko lurrak ez baitira ereiteko edota abereek baz-

katzeko egokiak. Gehienetan, azerbaijandarrek bereganatzen dituzte muga gurutzatzen duten abereak, nahiz eta bake misioako soldadu errusiarrek animaliak berreskuratzen saiatzen diren batzuetan. Grigoryanek lantzen zuen lurra mugaz bestaldean dago, baina orain pasabidea ia beti itxita dago eta errusiarren bitartekaritza baino ezin da ireki. Grigoryanek diosku: “Behin senarra eta biok harantz abiatu ginen, baina azerbaijandarrek ez ziguten gurutzatzen utzi. Beste behin ere itzuli ginen, orduan tiro egin zuten aireragu izutzeko. Bai, errusiarren laguntzaz uza biltzera joatea posible dugu, baina ezin dugu lurra askatasunez landu”.

Bake misioan dauden soldadu errusiarren presentziak ez du jendearen gogo asko animatzen. Oraintsuko gerrak kolokan jarri du autogobernua, eta Margaryan haren balioaz kontziente da. “Independentzia, ereserkia eta bandera: armeniarrek mendeak eman dituzte baliu horiek lortzeko borrokan. Eta orain borroka hori galtzen ari gara”, dio. “Neure etxean meneko sentitzen naiz. Giltzak badauzkat, baina ez naiz etxearen jabe”. Babayan bat dator iritzi horrekin: bere iritziak, Karabakh Garaia ez da inoiz inoren eskutan egongo, gatazka-azua izango da betiko. Uste du errusiarren presentzia beste aukerarik ez dagoela. “Geure ahotsa entzuteko prest azaltzen diren heinean, haiekin fidatu behar gara. Alde egiten badute, noren atea joko ote dugu?”, dio Babayanek.



Lorik gabeko gauak eta gerrako izugarrikeriak pairatu zituenekoa izan zen Babayan, etsaiaren eskuetatik hain gertu zegoen herrian geratu zenetariko bat. Egun ilun haietan, emaztea zen bere euskarri nagusia. Emaztea urriaren amaierara arte ez zen herritik joan, ordurako etxean emandako segundo oro sufrikario hutsa baitzen. “Sofa honetan esertzen ginen emaztea eta biok, eta inguruko etxeak lehertzean sortzen zen burrunba entzuten genuen, geurea joko zuen bonba noiz iritsiko”. Hala ere, nahiz eta heriotzaren itzala gertu izan, Babayanek aktibo jarraitu zuen. Hiru semeak frontean zeuden bitartean, auzokoen abereak zaintzen eta jendea Stepanakertera autoz eramaten aritu zen. Abere asko sufritu eta hil egin zen bonbardaketan eta arreta ezaren ondorioz, baina Babayanek bere abereetako batzuk salbatzea lortu zuen.

Bizi-erritmoari eusteko zailtasunak gorabehera, bizilagunek atxikipen sentimendu handia dute oraindik Shoshekiko. Arrotza egiten zaie herria uztearen ideia bizitza hobea lortzeko asmoz. Herriko arazo ugariak konponbidea behar dutela, jendeak hori ikusi eta esku hartzeko beharra sentitu du. Margaryan sunsitutako teilatua konpontzeko lanak bukatzeaz da, datorren neguari begira. Ez du zalantzarik bere biloben bizi-baldintzak hobetzeko lanean aritzeko orduan. “Herriarekin lotura sentitzen duen horrek bere azken arnasa eskainiko du Shoshen alde”, dio Margaryanek, “hauxe da gure patua eta ez genioke iskin egin beharko”.

Samvel Babayanek ere itxaropen iturri oparoa du, bere semearen adoreak elikatzen diona: bizitza berria sortzeko ahalegin bizietan dihardu, ogibidea ematen zioten angurri-soroak galdu dituen

arren. Seme nagusiaren lurra Aghdamen zeuden, gerraren ondorioz orain Azerbaijango mugen barruan dagoen herria. “Fedea galdu nuen etorkizunean une batez”, dio Babayanek, “baina, zorionez, neure aurreikuspenak okerrak ziren”. Ez-behar hori gaingitu eta Askeranen lursail berriak lantzen hasi ziren semeak, armeniarren eskuetan mantendu den herri batean. Horrek Babayan kontsolatu du, gozotik sinetsita dago oraindik ere aukeak badaudela. “Semeek Errusiara joatea zeukaten, larreak galdu dituzten askok egin zuten bezala, baina hementxe geratu ziren. Itxaropenari eutsi zioten, eta haie-taz harro nago”, dio. Uste du etorkizuna bermatu nahi duen orok lanean hasteko beharra daukala.

“Heriotza halabeharrez etorriko zaigu”, dio. “Egun, ordea, bizitzari eusteko unea da”. ●

2. FINALURREKOA
GALDAKAO Azaroaren 27an, zapatua, 17:00etan, Urreta kiroldegian

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
 www.bertsosarrerak.eus

Aitor Bizkarra Ruiz, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Etxahun Lekue Etxebarria, Josune Aramendi Perez, Oihana Bartra Arenas eta Xabat Gallettebellita Abaroa.

BIZKAIKO
 BERTSOLARI
 TXAPELKETA
 2021

Antolatzailea: Bertsolaritza: Laguntzailea:

EUSKALDUNON EGUNKARIA

Sorreratik itxierara, gizarte zibila oinarri duen kontakizun bat

Joan Mari Torrealdai hil aurretik ia amaituta utzitako liburua kaleratu dute Elkarrek, *Berria*-k, eta *Jakin*-ek, *Euskaldunon Egunkaria*-ren historiaz ikerlari euskaltzaleak zuen ikuspegia azaltzen duena. Azaroaren 16an aurkeztu zuten Andoainen jendaurrean.

 URKO APAOLAZA AVILA

Iaz zendu zen Joan Mari Torrealdai Nabea (Forua, 1942 - Usurbil, 2020) euskal kulturaren ikerlari eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko administrazio kontseiluko lehendakari izandakoa. Baina hil aurretik liburu bat prestatzen ari zen, bere bizitzaren zati handi bat markatu zuen proiektuaren sorrera, garrantzia eta itxiera kontatzen duena, *Egunkaria*-rena. Azaroaren 16an aurkeztu zuten *Egunkaria*. *Gizarte zibilaren arrakasta* Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean, liburua amaitzeko enkargua jaso zuen Joanmari Larrartek eta hitzaurrea egin dion Imanol Murua kazetari eta irakasleak.

“Hik bukatu beharko duk”, halaxe esan zion Torrealdai Larrarteri, eta Andoaingo aurkezpenean prozesu horren nondik norakoak azaldu zituen honenek. Jende asko hurbildu zen ekitaldira, euskalgintza eta prentsaren mundukoak, eta Muruaren galderei erantzunez, liburuaren beraren mamia zein den ere xehatu zuten ekitaldian.

Lekukotza, hemeroteca eta barne dokumentuetan oinarrituriko lana da, bai-

na “ez da *Egunkaria*-ren historia hizki larriz idatzia”, Larrarteren aburuz, Torrealdai oso presente zuelako historia hori azaltzeko denboran gertuegi geundela. Horregatik dago lehen pertsonan idatzia, bere bizipenetatik egina.

Zortzi kapitulutan banaturik, pisu nabarmena dute *Egunkaria*-ren sorrerak eta horren aurretik egindako saiakerek, eta hori aurkezpenean ere garbi geratu zen. Torrealdai liburuan dio ARGIAren inguruko taldeak *Egunkaria* sortzeko egindako “hordagoa” funtsezko izan zela: “ARGIAk egin zuen lehen urratsa eta hark abiatu zuen *Egunkaria* sortzeko prozesua”. Azpiegiturak eta baliabideak ere bazituzten ordurako.

Sorrera horien inguruan, Muruak 1990eko Bilboko Ercilla hoteleko argazki bat nabarmendu zuen ekitaldian: Martin Ugalde erdian, ondoan ditu Joxemi Zumalabe eta Torrealdai bera. *Egunkaria* Sortzen taldearen izenean ari ziren proiektua aurkezten. Bakoitzak “mundu” bat ordezkatzeko zuela azaldu du Muruak; Ugaldek gerraosteko aber-tzaletasunarena, Zumalabek ARGIAren

bueltako talde “gazte eta borrokalaria”, eta Torrealdai “Elkar-Zabaltzen eta mundu horren inguruan zegoen euskalgintzaren sektorearekin konektatzen gintuen”. Argazki horrek “urrea” balio duela dio liburuaren hitzaurrean Muruak.

GIZARTE ZIBILAK SORTUA

Larrarteren ustez, Torrealdai azken urteetan bazuen eginahal nagusi bat, liburuaren tesia dena eta izenburura ekarri dutena: erakustea gizarte zibilak sortu zuela *Egunkaria*. “Ez itxieran bakarrik, *Egunkaria* sortzen den momentutik ibili behar izan zuten azaltzen, demostratzen, *Egunkaria* ez zela ETAK sorturikoa, egunkaria ARGIAren hasi zela, ARGIAk euskalgintzara dei egin zuela, eta euskalgintzan antolatu zela *Egunkaria* Sortzen, proiektu honi ekin ahal izateko”.

Instituzioekin izandako harreman gatatzatsuen eta diru-laguntzak lortzeko egin beharreko mugimenduen berri ere badakar liburuak. Bateko bilerak eta deserosotasunak, besteko iradoki-



**martin
ugalde**
kultur parkea



**martin
ugalde**
kultur parkea



Joanmari Larrarte eta Imanol Murua liburuaren aurkezpenean, Andoainean. ANDONI CANELLADA / FOKU

zun, diskurtso eta gutunak... Beti zalan-tzan erabakiak zeinek hartzen zituen, proiektuaren atzean zein zegoen eta argazkian "lastozkoak" zein ote ziren. 2003ko polizia operazioa eta epaiketa ikusita, begi-bistakoa da batzuek asmatu zutela euren independentzia irmo defendatzen zenbait kargu politikoren adierazpenen aurrean.

Galdera erantzunetan, Muruak ez zituen saihestu gai arantzatsu batzuk. Esaterako, *Egunkaria* ixteko akusazioek ekarritako "distortsioa" proiektuaren historiaren kontakizunean: akusazio horien ondorioz ezker abertzaleareki-

ko "loturetatik urruntzen gintuzten argudioak" eman behar izan ziren behin eta berriz; horregatik, bere ustez, ez da aitortu "behar beste" sektore politiko horrek proiektuari hastapen horietan emandako babesa. Larrartek ere hala uste du: "90eko egoera hartan EAJK kontrako jarrera hartu zuen bezala, ezker abertzaleak kontrako jarrera hartu izan balu gaur ez ginen egongo honetaz hitz egiten".

Liburuaren amaiera eskerrak emateko da. Euskal gizarteari eskerrak ematen dizkio Torrealdaiak, 2003ko itxieraren ostean "eutsi egin zitzaielako proiektuari", indarra berreskuratu eta posible egin zuelako handik lau hilabetetara *Berria* martxan jartzea, Larrarteren hitzetan. Honek, Torrealdaiak idatzitako sarreraren pasarte bat irakurriz amaitu zuen bere hitzartzea: "Askoren parte hartzeak egin zuen posible *Egunkaria*, eta geroago *Berria*, haren jarraipena. Ez da nire asmoa ez dagokidan protagonismoa hartzea. Ez nuke neurritz gaineko lekua hartu nahi herri honena izan den (eta den) proiektu horretan -eta lortuko ahal nuen!-. Bakarrik espero dut nire ikuspegiak lagunduko duela proiektua hobeto ulertzen". ●

tuari", indarra berreskuratu eta posible egin zuelako handik lau hilabetetara *Berria* martxan jartzea, Larrarteren hitzetan. Honek, Torrealdaiak idatzitako sarreraren pasarte bat irakurriz amaitu zuen bere hitzartzea: "Askoren parte hartzeak egin zuen posible *Egunkaria*, eta geroago *Berria*, haren jarraipena. Ez da nire asmoa ez dagokidan protagonismoa hartzea. Ez nuke neurritz gaineko lekua hartu nahi herri honena izan den (eta den) proiektu horretan -eta lortuko ahal nuen!-. Bakarrik espero dut nire ikuspegiak lagunduko duela proiektua hobeto ulertzen". ●

BABESLEA:



HIZKUNTZA


berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry



Afrika arpilatuaren zati txiki-txiki bat



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Gineako golkoa, 1892. Frantziar ejertzitoak Dahomeyko erresuma mendean hartu eta Abomey hiriburuko errege jauregia arpilatu zuen. Dahomeyko erresumak XVIII. mendean izan zuen garairik oparoena, Europako estatuekin merkataritza harremanak estutu zituztenean. Besteak beste, emakumez osatutako erregimentu batengatik zen ezaguna –atal honetan bertan 2019ko otsailan azaldu bezala–, baina egungo Beninen zegoen erresumak ez zuen aukerarik izan XIX. mende amaieran Frantziak eskualdeko kontrol zuzena zabaltzea erabaki eta konkista gerrari ekin zionean.

Joan den azaroaren 10ean Beningo Cottonou aireportuan hegazkin bat lurreratu zen, barruan 26 artelanez betetako kutxa bat zeramana: hiru estatua, Dahomeyko azken erregearen tronua, hainbat aldaire eramangarri, dantzarako hiru makil, Abomeyko jauregiko lau ate... Pieza horiek Frantziako bilduma nazionalaren parte izan dira azken 130 urtetan eta Parisko Quai Branly museoan egon dira Afrika, Asia eta Ozeaniako beste milaka artelaneekin batera. Frantziak itzultzea erabaki duen 26 artelanei harrera ofiziala egin zien Patrice Talon presidenteak, eta herritarrek festa giroan ospatu zuten frantziarren keinua.

Bénédicte Savoy arte historialariaren hitzetan, “lehenengo aldia da garai bateko herrialde kolonial batek, kasu honetan Frantziak, herrialde afrikar bati



Dahomeyko jauregiko atek, frantziar ejertzitoak XIX. mende amaieran lapurtuak eta berriki Beningo gobernuari itzuli dizkietenak.

bere ondarearen zati garrantzitsu bat itzultzen diona”. Baina ekimena ez zen Frantziarena izan. Beningo errepublikako presidentek aspaldiko erreklamazioa 2016. urtean egin zion ofizialki Françoise Hollanderi. Frantziak ezezkoa eman zuen orduan, piezak frantziar bildumen parte zirela eta legez ondarea ezin zela zatitu argudiatuz. 2017an Macron estatuburu izendatu zutenean, ordea, Abomeyko jauregiko altxorrak itzultzeko konpromisoa adierazi zuen. Bénédicte Savoy eta Felwine Sarr historialariek txosten bat eskatu zitzaie, eta soilik Frantziako museoetan Saharaz azpiko Afrikako 88.000 artelan daudela ondorioztatu zuten. Legeak aldatu eta artelan arpilatuak pixkanaka itzultzeko protokoloa ezarri zuten orduan.

Txostenak agerian utzi du Abomeyko jauregiko altxorra icebergaren punta ñimiñoa besterik ez dela. Kolonialismoaren garai gorenean Saharaz azpiko Afrikako ondare kultural eta artistiko material ia gehiena –% 90, zenbaiten ustez– kontinentetik atera zuten, amarruak erabiliz edo zuzenean lapurtuz. Agerian utzi du, halaber, oraindik badirela lapurtutakoa itzultzearen aurkako ahotsak, artelanak Mendebaldeko potentzien museoei esker gorde direla eta jatorrizko lekuetan arriskuan egon litezkeela argudiatzen dutenak. Frantziako estatuek egin berri duen keinua ez dadila ospakizun paternalistatara mugatu, pentsamolde zaharkitu supremazistak gainditzeko balio dezala, eta geratzen den bide luzea arindu dezala. ●

THIERRY OLMIER ETA MICHEL URTADO



Heineken vs. Brasilgo ondarea

1974an, Brasilgo Lapa Vermelhan, duela 11.000 urteko emakume baten arrastoak aurkitu zituzten. Amerikako giza arrastorik zaharrenak ziren, eta kontinenteko populatzeari buruzko teoriak irauli zituen. Orain, Heineken enpresa herbeheretarra fabrika bat eraikitzen ari da eremu horretan. Berriki agerian geratu da, garagardo ekoizleari baime-

nak emateko orduan, Brasilgo erakundeek ez zutela kontuan hartu hango balio arkeologikoa. Une honetan obrak geldirik daude, eta eztabaida, aldiz, pilpilean: fabrikak 350 lanpostu zuzen sortuko ditu, inguruan eragin ekonomiko nabarmena izango du, baina oraindik oso gutxi ikertua dagoen aztarnategi garrantzitsua arriskuan jartzen du. ●

DURANGOKO AZOKA

Hurrengo geltokia Durango

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Inguruan sumatzen da dagoeneko Durango-usaina. Hasiak gara abendu-zubirako planak egiten eta askoren asmoetan sartzen da azokara bisita bat egitea. Landako eraikina existitu aurretik azoka karpa zuri eta hotz hartan egoten zenetik hutsik egin gabe, aurten ere bertan izango da ARGIA. Eta Landakotik kanpo ere, aurten mahaia jarriko du ARGIAk: elizako arkupean eskuratu ahal izango ditugu herritar denek ARGIAko produktu guztiak.

Landako barruan zein elizako arkupean erosi ahal izango diren nobedadeen berri ari gara ematen astekariz astekari eta ez naiz berriz gehiegi sartuko zerrendan, baina mahaietan ondo ikusteko moduan topatuko ditugu *Txori Urdinak*, *Bidean* eta *Sendabelarrek dakitena* liburuak, *Xapoketan* puzzlea, *Ilargia* eta *Landareak 2022* agenda, *Ilargiaren Egutegia*, ARGIAren 2022ko egutegia, eta abar. Horrez gain, bertan sustengatu ahal izango dira ARGIAk bultzatuta sortutako "Inor ez da ilegala" edo "Lurra herriari deika" bezalako proiektuak. Eta, noski, ARGIA proiektua babesteko harpidetzeko aukera ere beti egongo da.

Disko eta liburuen aitzakian, hitzaldiak ere antolatzen dira, beste ekitaldi batzuez gain, azken urte hauetan. ARGIAk badu zer kontatu eta zazpi hitzaldi ditu prestatuta. Aurreko lefroetan aipatu ditudan nobedade guztien aurkezpenak ikusteko aukera izango dugu. Hori bai, lekuan aurreko edizioetatik aldaketak egon dira eta hitzaldi bakoitzaren eguna, ordutegia eta lekua ezagutzeko begiratu artikulu honen alboan daukazun zutabera.

Abenduaren 4tik 8ra ospatuko da azoka eta ARGIA Landakoko Goienkale 68-69-70 standetan egongo gara. Hori non dagoen? Plateruena aldetik, erdiko atetik sartuta, aurreraino joan (informazio guinea egoten da leku horretan) eta eskuinera.

Durangon izango dira irakurleekin hitz egiteko eta zalantzak argitzeko gogotsu Jakoba Errekondo, Garbiñe Larrea, Zigor Olabarria eta Koldo Rabadan, nobedadeen egileak.

Durangora joan ezin eta Lasarte-Oria eskueran geratzen zaionak ere abenduaren 6 eta 7an aukera izango du ARGIAren pabiloitik pasa eta bertako dendan ARGIAren produktuak lortzeko. ●



ARGIAk Durangoko Azokan mahaia jarriko ditu eliza atariko arkupean eta Landako gunean. Landakoko Goienkale 68-69-70 estandetan egongo da.

Txori urdinak

Espetxe sistemaren erretratu bat Santi Cobos presoaren bizipenen bitartez

Zigor Olabarriak liburua aurkeztuko du Silvia Cobos Santiren arrebarekin batera.

🕒 **Azaroak 27** 12:00etan

📍 **Gasteiz** Hala Bedi Irratiaren lokalean (Buena Monreal 16). Ondoren, zizka-mizkak eta marianito musikatua Ziklone taldearekin Gaztetxean.

🕒 **Abenduak 6** 11:30ean

📍 **Durango** Musika eskolan.

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo
Koldo Rabadan Izagirrek liburua aurkeztuko du.

🕒 **Abenduak 5** 11:30ean

📍 **Durango** Musika eskolan.

Sendabelarrek dakitena

Ezagutu, bildu eta erabili

Garbiñe Larrea Iturralde liburuak aurkeztuko du.

🕒 **Abenduak 3** 19:00etan

📍 **Errigoiti** Elizalde auzoko Ikuilu elkartean.

🕒 **Abenduak 7** 11:00etan

📍 **Durango** Musika eskolan.

Xapoketan puzzlea

Iñaki Sanz eta Eñaut Aiartzaguenak aurkeztuko dute.

🕒 **Abenduak 5** 10:30ean

📍 **Durango** Saguganbaran.

Ilargia eta landareak agenda

Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako 2022ko agenda aurkeztuko du.

🕒 **Abenduak 4** 12:00etan

📍 **Durango** Musika eskolan.

Ilargiaren egutegia

Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako 2022ko egutegia aurkeztuko du.

🕒 **Abenduak 5** 16:00etan

📍 **Durango** Musika eskolan.

Etxeko landareak

Jakoba Errekondok liburua aurkeztuko du.

🕒 **Abenduak 4** 16:00etan

📍 **Durango** Musika eskolan.

PATXULIA ALDE, ALDE!



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Patxuliaren (*Pogostemon cablin*) usaina ez dut gustuko. Usain astuna, sarkorra, garratza, lurtsua eta egurtsua du, lehorra, kea gogorazten du, baita kanforra (*Cinnamomum camphora*), ziropa, basopea, likoreak eta botikak ere; zenbaitentzat lizun urrina ere badu. Jasminak (*Jasminum fruticans*) eta almizkleak bezala lizunkerietarako joera pizten duela diote lurringileek, erotikoa eta mendetasun-sortzailea omen dela. Ba ni bete egiten nau, eta ez dit ezer pizten, beno bai, hurbil samarretik aditzen badut, goragale punttua. Alde, alde! Ospa! Eskerrak inguruan ez dudan lurrin hori erabiltzen duen lagunik. Antigualeko jendeak erabiltzen du, "hippyek" nioen lehengo batean; eta manifestazioetan egiten dut topo niretzat ia kiratsa den horrekin. Ez dut aditzen beste jende pilaketetan, ez tanatorioetan, ez idi-probetan, ez sagardotegietan, ez kontzertuetan, ez azoketan... Manifestarako jantzi berezia da, nonbait, patxuli lurrina; agi danean paparra berarekin bustita harroago oihukatuko dira "pre-soak etxera" edo "errausketarik ez" edo "osasuna, askatasuna" edo...

Asia hego-ekialdeko landarea da patxulia. Izena hizkuntza tamiletik dator, eta hosto berdea esan nahi du. Hostoak eta txortanak destilatu eta barriketan finduz sortzen den esentzia-olioa da bere etekin nagusia. Gaur egun munduko lurralde tropikal gehienetan ekoizten bada ere, Indonesia da ekoizle



Aspaldiko garaietan ekialde urrunetik Europa aldera ekarritako zetak, kaxmirrak eta bestelako oihalak sits eta beldarrendandik babesteko patxuli olio zurruntzen ziren. Gero oihal horiek bezain luxuzkotzat hartzen hasi zen usain berezi hori.

nagusia, munduan erabiltzen den patxuli olioaren %90 egiten du: gutxi-gehiago 1.600 tona. Pogostemon generoko beste espezie batzuk ere erabiltzen dira oliogintza oparo horretan, *P. heyneanus* eta *P. Plectranthoides* adibidez.

Patxuliak erabilera ugari du. Sukaldean hosto berdeak eta lehorrak eta olio bera; intsektuak uxatzeko... baina erabilera ezagunena da intsentsu usaintsuetako eta lurrinetako osagai bezala. Intsektizida izateak eman dio lurrin bezala ezagunagoa izatearen sona. Itxuraz, aspaldiko garaietan ekialde urrunetik Europa aldera ekarritako zetak, kaxmirrak eta bestelako oihalak sits eta beldarrendandik babesteko patxuli olio zurruntzen ziren. Gero oihal horiek be-

zain luxuzkotzat hartzen hasi zen usain berezi hori.

Patxuli landarearen olio esentzialak, usain bizia duten antzekoek bezala, hainbat funtzio onuragarri ditu: usainaren bidez, landareak intsektu parasitotatik babes ditzake, baita onddo edota bakterioek ekarritako infekzio eta gaitxotasunetatik ere; animalia belarjaleak ere uxa ditzake. Bestalde, olioak ugalketa erraztu dezake, patxuli usainak polena garraiatzeko ardura duten intsektuak erakartzen baititu. Gainera, euriak olioaren usaina airean eta lurrean hedatzen du, eta eraman ezin diren landareak inguruan ezartzea eragozten du.

Patxuliak batzuk erakarri eta beste batzuk, ni tarteko, uxatu. Alde, alde! ●



OÑATI
dabilen herria

Guk egiten ez baxonau/baxuau,
zeineri eskatu egin deixen?



HARRI HERRI NEKAZARITZA

GAZTE ARABAR BATEN PROIEKTU AGROEKOLOGIKOA SAKANAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nafarroara mugitu aurretik, Arabako Mendialdean saiatu zen Asier Ordoño gazte gasteiztarra lurretik bizitzen: “Amonaren baserrira joan nintzen lehenik, harekin bizitzeko eta ahuntzen proiektu bat martxan jartzeko asmoz”. Agroekologia ikasketak eginak zituen Arkauten, eta mendialdean lursaila eskuratzea zen haren asmoa. Amonarenean ez zuen lortu, ordea, eta azkenean, 2018an, Uharteko Arakilen topatu zuen 2,7 hektareako lur zatia, berak abiatu nahi zuen proiekturako egokia. Baratzea, fruta arbolak eta oiloak ditu bertan, eta zuzeneko salmenta egiten du Sakanan eta Gasteiz inguruan.

DIBERTSIFIKAZIOA

Nekazaritza proiektua tabernari lanarekin uztartu zuen Ordoño lehenera. Aurretiko urtarrean, ordea, taberna utzi eta buru-belarri sartu da ekoizpenean: “Iritsi nintzenean, hainbat espeziatako 200 bat fruta arbol landatu nituen, beti ere bertako barietate zaharrak lehenetsiz”. 50 oilo ere baditu: “Oilategi mugikorra dut, eta hiru egunetik behin tokiz aldatzen dut, belarra freskoa eduki dezaten eta lurraren mikrobiologia potentziatzeko”.



Arrautzak saltzen ditu Ordoño, eta horretarako, kutxa moduko bat prestatu du lursailaren iskina batean, jendea pasatzen denean arrautzak zuzenean har ditzan. “Hor uzten ditut dozenak prezioarekin, eta pote bat dirua uzteko. Oso ongi funtzionatzen du”, dio. Proiektuaren hirugarren zutabea, berriz, 1.200 metro karratuko baratzea da. “Hasieratik izan da nire asmoa produkzioa dibertsifikatzea, proiektua iraunkorra izan dadin”, dio. Hiru zutabe nagusi horiek bestelako jarduerekin uztartzen

ditu. Esaterako, aurten, sendabelarrekin ukenduak ere egin dituzte bikotekideak eta biek.

GAZTEAK, HASTEKO GOGOZ

150 oilotara pasatzea eta baratzekeko ekoizpena handitzea da datorren urterako Ordoñoaren asmoa, eta horretarako, proiektuan bigarren pertsona bat hartzea aurreikusten du. “Eskaria badagoela ikusita, eta lana eta bizitza pertsonala kontziliatzeko aukera izateko, proiektua beste pertsona bati zabaltzea da orain helburua”. Mezu bidez zabaldu zuen kide baten bila zebilela, eta harrituta gelditu zen jasotako erantzunarekin: “Jende askok deitu zidan, Gipuzkoatik, Iruñetik, Leitzaldetik, Sakanatik... jende gaztea halako proiektuetan sartzeko prest eta gogoz dago, baina arazoa da lurrerako sarbidea oso zaila dagoela eta burokrasia izugarria dela”.

Pixkanaka proiektua handitzen bada ere, eredu txikian jarraitzeko asmoa du Ordoño, agroekologiako printzipioen arabera lan eginez: “Zigilurik ez dut, baina Arkauten ikasitako moduan ari naiz lanean: laboreen txandakatzeko eta asoziazioak eginez, agroekologiako teknikak erabiliz”. Uraren aprobetxamenduari begira ere, diseinu hidrológico oso bat egina dute lursaillean. Sustriak Habitat Designek diseinatuak diren teknika baten bidez, ureztatzeko urak aprobetxatzen dituzte. ●





NI-TIK ZU-RAKO JAUZIA, TUPUSTEAN

Lehenbiziko komiki antologia argitaratu eta urte parera, bigarren liburukia kaleratu berri du Tupust! kolektiboak.

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean liburua aurkeztu ostean, labetik atera berri den lanari buruz gehiago konta diezaguten jarraitu diegu Komikigunera kolektiboko kide diren Paula Estévez, Ainara Azpiazu Aduriz eta Maite Gurrutxagari.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA  DANI BLANCO

Amankomunean zerbait egin asmoz, 2016an hasi ziren biltzen Euskal Herriko hainbat emakume komikilari, eta hitzorduz hitzordu joan zen gorpuzten Tupust! kolektiboa. Euskarazko komikigintzan ere ertzetako ahotsak urri zirela iritzirik, komikia eta feminismoa uztartzea izan zen beren buruari xedatutako helburuen artean nagusienetarikoa. Lehen zenbakian jasotzen denez, baina, zerrendatu zituzten xede gehiago ere: egileen arteko komunitatea osatzea, sare horren bidez proiektu berriak hauspotzea, egitasmoak antolatzea, sorkuntza modu zurrunekin haustea eta egile profesionalak amateurrekin nahastea. Bide-orria marrraturik, zortzi pertsonak hartu zuten kolektiboaren gidaritza –Ametz Gurbio-la, Maitane Gartzandia, Paula Estévez, Irati Eguren, Maite Caballero, Loinaz

Lekuona, Ainara Azpiazu eta Maite Gurrutxaga–, eta zenbaki bakoitzean parte hartzeko gonbita luzatzen diete beste sortzaile batzuei. Hala, proiektuaren atzean dauden sortzaileen lanen ondoan artista gonbidatuen lanak argitaratzen dituzte antologia bakoitzean. Azken honetan, Dom Campistron, Irati FG, Regina Salcedo, Yolanda Mosquera, Mikel Larraioz, Ane Zaldibar, Aintzane Usandizaga, Asteazkenak (Maddi Zumalabe eta Jon Aranguren), Susanna Martín, Irkus M. Zeberio, Josune Urrutia, Irati Jimenez eta Raisa Álavaren sinadurak aurki ditzake irakurleak.

“Ni”-aren bueltan ardaztu zuten lehenbiziko *Tupust!* (Txalaparta, 2019), eta “Zu” du gai zentralizat bigarrenak. Hala egitea erabaki zuten hastapenetako bileretan, trilogia bat osatzeko ideia buruan bueltaka. Lehenengo lanean formulak

funtzionatu zuela iritzirik, aurreikusi bezala jarraitzea erabaki zuten. Bigarren antologiak 21 sortzailearen hamazazpi lan biltzen ditu, eta horietako bakoitzean abiapuntu gisa emandako gaiaren interpretazio propioa egiten den arren, oinarri berbera izateak lanari homogeneotasuna ematen diola deritzote kolektiboko kideek. Emaitzak estilo aldetik ere batasuna izan zezan, aldi honetan ere bi tintatan inprimatu dituzte orriak –laranja eta urdina–, egileen estetika eta narrazio molde askotarikoak bateratu asmoz. Pozik daude emaitzarekin, lehen argitalpenak emandako esperientzia lagun, akatsak zuzendu eta hobekuntzak egiteko abagunea ere izan baitute: mate azala plastifikatutakoarengatik ordezkatzeta eta solapak gehitzea, kasu. Hizketan dabilzan bitartean, pozik darabilte lanaren fruitua esku artean.



AUTOEDIZIOAREN HAUTUA

Lehen argitalpenarekin esperientzia eta jakintza pilatu arren, bigarrena ez da hanka azpiz gauzatutako prozesuaren emaitza izan. “Aurrekotik gauza asko ikasi ditugu, eta horrek erraztu du bigarren liburua ateratzea. Baina gero sartu da aurrekoan ez zegoen faktore bat, autoedizioarena. Eta horrek prozesua pixka bat luzatu du”, azaldu du Gurrutxagak. Liburuaren promozioa, bidalketak... argitaletxeek egin ohi dituzten lanez arduratu behar izan direla diote. Ez zen hori beren hasierako asmoa, berriz ere argitaletxe batekin argitaratzea baitzuten buruan. Alabaina, “guk gonbidatutako autoreengatik apostu egin genuen, eta beraiekin bukaeraraino iristeko autoediziora jotzea izan zen ikusi genuen aukera egokiena”, dio Gurrutxagak. Izan ere, argitaletxeen baldintzek ez zien ahalbidetzen autore horiek guztiak bilduko zituen lana argitaratzea.

Horren gainean irakurketa egin du Estévezek: “Badira oso ausartak diren lanak, narratiba, irudi edota gai aldetik nahiko ezberdinak direnak, edo ohikoan ikusten den komiki eredutik aldenitu egiten direnak. Inguruan ez dago komiki alorrean hain ausarta den argitaletxe asko. Oro har, hemen argitaratzen den komikia nahiko kontserbadorea dela esan daiteke”. Eta ildo beretik, hala dio Azpiazuk: “Euskal Herriako argitaletxeak zorionez ari dira geroz eta komiki gehiago publikatzen, baina nik uste oraindik ere produktuen aurrean sartzen zaiela ekonomikoki errentagarria ez izatearen beldurra. Egia baita Euskal Herria ez dela gizarte komikizalea”. Guztia muinean komikigintzaren ulerkera zehatz eta mugatua dagoela deritzote: “Joera dago narratiba unibertsal bat eta bakarria dagoela pentsatzekoa, eta hortik ateratzen dena horren parte ez



PAULA ESTÉVEZ

balitz bezala hautematen da, bazterrekoa eta arbuigarria bailitzan”, azaldu du Azpiazuk. Tupust! sortzerakoan izan duten erreferentzia nagusia Alemaniako *Spring Magazin* izateak gertuko panoramaz, erreferentzia faltaz, asko esaten duela deritzote.

“Gure asmoetako bat zen gustuko eta interesgarriak zaizkigun narrazio moduak zentzura ekartzea.”, gogoratu du Gurrutxagak. Asmo horiek berretsi ditu taldeak, bidea erronkaz beterikoa dela irizita ere. Hori bai, argi adierazi dute bide hori argitaletxeekin egin nahiko luketela

aurrekoan. “Argitaletxe bat tresna garrantzitsua da”, bat datoz hirurak.

IRAKURLE FIDELAK ATZEAN

Autoedizioaren bidea hartu izanaren ondorioz espero zituztenak baino egin-kizun gehiago beren gain hartu behar izan dituzten arren, ez da nekea izan prozesutik atera duten bakarra. Liburuaren promozioa eta salmenta ere haien esku egonik, sarean denda bat egin beharrean ikusi dira, eta behin saltokia sortuta, aurrealmenta egitea



EUSKARAREN EGUNeko EGITARAUA

14:30 **HERRI-BIXI**ren emanaldia


Herriko plazan (Euria badago frontoian)

17:30 Umeekin **ZUMBA** Herriko plazan

19:00etan Bakarrizketa nagusientzat

“EVERYBODY NEDDS... HEROES”

Bideo gelan



erabaki zuten. Eskariak bata bestearen atzetik heldu zitzaizkien, agerian utziz proiektuak baduela babesten duen irakurle sare bat, produktua ikusi beharrik gabe erosten duena. “Pertsona horiek itsu-itsuan erosi dute, lehenengoa gustatu zitzaielako. Profil horretako jendea edukitzea altxorra da”, dio Azpirozuk.

Azken *Tupust!*-en aleak liburu-denda eta etxeetara heltzen ari diren honetan, artega daude kolektiboko kideak, liburuak eragindako inpresioen jakin-minez. Etorkizun hurbil horretan daukate orain iltzatuta begirada, baina hala ere une batez epe-luzeagora begira jartzeko eskatu diegu. Aurrera begirakoan *Tupust!*-en hirugarren zenbaki bat argitaratzeko asmotan ote diren galdegindakoan, ziurgabetasuna dela nagusi erantzun dute. “Hasiera batean trilogia bat planteatu bagenuen ere, oraindik ez dakigu hirugarrena argitaratzera iritsiko garen. Azken finean, taldean lan egiteak desgaste handia dakar, eta horri autoediziora jo beharra gehituz gero... are desgaste handiagoa da guretzat. Beraz ikusi beharko da hirugarren zenbakia argitaratuko dugun. Indarrak baldin badauzkagu, baliteke”, dio Estévezek. ●

BADA HORRENBESTERAKO


araba  álava
foru aldundia diputación foral

A25



LIBURUA

Amodioa gorrotoaren erdian



ANTIPODAK
GAIZKA AROSTEGI

IBAIZABAL, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Donostia. 80ko hamarkada: berunezko urteak". Horixe irakur dezake estilo arinean eta bizian idatzitako nobela honetan murgiltzen den irakurleak Jon eta Olivaren arteko amodiozko istorioa ezagutu aurretik. Eta bai, 80ko hamarkadan dago girotuta Gaizka Arostegiren nobela hau, eta bai, berunezko urteak dira. Nobelaren hogeitakapituluetatik lehenengoan bertan ikus dezakegu indarkeria giroa; nobelako protagonista kalean doa iluntzean, astiro-astiro barrikada batera hurbiltzen ari diren bi kotxe nabaritzen ditu; guardia zibilaren kotxeak dira eta, halako batean, zoko batetik gazte batek molotov koktel bat jaurtiki die guardiei. Haietako bat sutan larriki zauritu da.

Jonek korrika ihes egiten du gertakarien lekutik, eta hor hasten den korrikaldiak nobela guztian iraungo du, ete-

nik gabe gertatzen baitira pasadizoak, enkontruak, borrokak, haserreak... izan ere, gau horretan bertan, institutuan ezagutu zuen neska batekin egiten du topo, hura ere egoerak bultzatuta ihesi doa, nahiz eta honen kasuan bera zihoan autobusa gazte batzuek erre dutelako izan. Eta horrela, Jon eta Oliva, egoerak bultzatuta, elkarrekin doaz. Gau horretako txinpartek, suek, edo delakoek, gazteen arteko maitasuna hauspotzen dute eta amodio ezinezkoari hasiera eman.

Jon eta Oliva gure Romeo eta Julieta lirakeke. Amodio ezina, ezinezkoa; Jonen aita etakidea da eta preso dago urruneko kartzela batean; Olivaren aita Guardia Zibileko sarjentua da Intxaurrendoko kuartelean. Shakespeareren dramaren bezala hemen ere eragozpenak pilatuko zaizkie bi gazteei; egoerak, familiek, la-

gunek... guztiek egiten dute harreman horren kontra.

Arostegik abenturazko nobelak idatziaz ditu gazteentzat, duela 30-40 urteko giroa islatzen zuten obrak; oraingo honetan, baina, 80ko hamarkadako egoera berrituz kokatu du nobela; segadan hildako etakideak, bahitutako enpresa gizona, erredurengatik hiltzen den guardia zibila, preso dagoen aita, presoenguruko mugimenduko kideak eta beste hamaika pertsonaia aurkituko ditugu; baita kuarteletik ia irten gabe bizi diren familiak, egunero senarra irten baina etxeratuko ote den ez dakien emaztea... baina hau guzti hau testuingurua dugu, amodiozko istorioaren inguruan dagoena, horixe baita nobela interesgarri honetako elementu nagusia, bi gazteren arteko harremana eragozpen, zailtasun eta ezintasun guztien aurrean. ●

AZAROAK

25

**INDARKERIA MATXISTAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

e9 berdintasun kontseilua Hernaniko Udala



diseinua: limolura.com



MUSIKA

Urrutiko palmondoan hamalau, gerturatu eta hogeita hamabost

XALBA RAMIREZ

Euskal folklorea reggaea emana. Ideia sinple batean laburtzen da *Reggaean jarrai* lan kolektibo eta korala. Euskararen tradizioa ulertzeko era ireki eta bizia, fosiletik ezer ere ez duena.

Herri kantu tradizionalak, XIX. mendeko egileen sortak –Xenpelar, Bilintx, Iparragirre– eta 60ko eta 70eko hamarkadako euskal kantagintza berria –Iriondo, Lete, Laboa, Balentzia–. Hiru ildo horiek jamaikar *oldie* ikuspuntutik jorratuak: ska, rocksteady, skinhead reggae, roots pixka bat... Taldeek bada-kite, eta maite dute musika hori.

Eta, garrantzitsuena, hamalau musika talde batu direla 35 zigilu eta elkarterekin auzolanean lana kaleratzeko. Reggaeren maitaleak auzolana du maite.

Hemen dira –merezi du denak aipatzea– Errementarians & Sanfran Koriue, MG Banda, Skabidean, Steady Rockets,

REGGAEAN JARRAI ASKOREN ARTEAN ZIGILU ANITZ

Trikoma Banda, Sound Riders, Skakeo, Tacumah, Siroko, Ama Rebel, Fermin Goñi & Agromondarrak, Jahgoikoa eta Reggaezaharra, Xiberoots eta Euskatalites. Ezagunagoak batzuk, kasik hemen baino topatuko ez ditugunak beste batzuk. Zazpi estudioan grabatua, soinu ezberdinak proposatzen dira, estetikan bat egitea lortuz.

Kaskamutilek eta kaskanek era-kusten dute, behin eta berriz, estereotipoen ginetik aberastasuna dela beren



altxorra. Musika beltzaren lurrikara izan zen Jamaikatik, Euskal Herriaren iturriraino egiten dute salto, hainbat estilori arima bera gehituz.

Berritzeko era ugari daudelako. Baina denek elkarbanatzen dute bat: entzuten jakitea. Belarri, bihotz eta begiekin entzutea. Komunitateari itzultzen zaio zintzotasunean. Martxan jarri Sound Systemak, Euskal Herri tropikala ez dadin izan utopia. ●





Vulk ez da

📍 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📍 ADRIÁN ROMERO RUIZ

Klaketa, makilajea eta hasteko agindua. Oholtzaren aurrean 400 bat ikusle, besaulki erosoetan jarrita. Oraingoan, antzoki bat bete du Vulk taldeak. Zuzenean jotako abestiak aurretik grabatutako irudiekin nahastu dituzte, errealitatearen eta simulakroaren, egiaren eta gezurraren ideiarekin jolasteko.

Pantailan agertu dira Vulk-eko lau kideak hondo zuri baten gainean. Ez dago argi zer den horma eta zer zorua. Nahas-mendua sortzera etorri direla agerikoa da. Kamerariak eta errealizatzaileak ageri dira plano barruan, ikusten ari garena antzezpena dela ahaztu ez dezagun. Abestia bukatu eta platoa hustu da. Hurrengo eszenan lau taldekideak gela zuri batean azaldu dira. Isilik, urduri eta gogaituta. Orduan agertu dira eszenatokian, pantailatik kanpo, Andoni de La Cruz (ahotsa) eta Jean Keatz Larrañaga *Jangitz* (bateria) base elektronikoko baten

gainean abestuz, Sleaford Mods gogora ekarriz. Amorrua darie hitzei. Atzeko planoan taldekideak pantailaren gati-butasuren ikus ditzakegu. Batzuetan, askotan, bizitza kartzela da. Askotariko formak hartzen dituen kartzela. Artea ere, bereziki espektakulu bihurtzen denean, kartzela izan daiteke.

Kanpoan dagoena, baina, ez da samurra. Heriotza atzetik jarraika dute. Noranahi doazela, etsai den heriotza beti izango dute orpoan. Taldeak transformazio prozesu bat bizi duela argi dago, musikan eta hitzetan, kaleratu behar duten diskoan abesti guztiak euskaraz abestu baitituzte. Eraldatze prozesu batek heriotza eta jaiotza dakartza barnean. Hori irudikatu dute taldekideek pantaila handian: Vulk-en iraganeko argazkiei artisau baten lan finak jarraitu die. Agian nostalgia ariketa izan da. Agian ez dute nondik datozen ahaztu nahi. Agian arbasoei emandakoa esker-

VULK (ZINEBI JAIALDIA)

NOIZ: azaroak 14


NON: BBK Aretoa (Bilbo)

tu nahi izan diete. Eszenatokian, ordea, Vulk-en izaera berria aurkeztu dute. Al-daketak gorabehera, aspalditik jarraitzen ditugunok betiko energia sumatu dugu. *Jangitzek* deabrua dirudi baterian, soilik Julen Alberdi gitarra-jolearen elegantziarekin oreka daitekeena. Alberto Egiluz baxua jotzen ikustea zoragarria da, pasio neurtuarekin eta gorputz osoarekin jotzen baitu. Ahotsetan Andoni, mila gizakiren indarra duen armada baten buru. Hori da Vulk.

Emankizuna bukatuta, ez dago argi ikusitakoa antzezpena edo basapiztia berri baten jaiotza izan den. Baina hemen barruan sortu den energia uholdeak ikusleak aho bete hortz utzi ditu. Kalean, euri-jasa azpian, ikusi eta entzundakoaren indarra nabarmenduko dute. Hurbil, suge erraldoi bat den ibaiak gainezka egin eta hiri hau desagerrarazi behar duela dirudi. Eta hala izan bazen ala ez, soilik han izan ginenok jakingo dugu. ●



Hitz gezidunak

PERTSONAIA- REN ABIZENA ----- ONESPENA ADIERAZTEKO ESAPIDE	ERAGOZPENA ----- KOLPEAK EMAN	ASMO FINKO	DANI BLANCO 		KONFORME ----- MADARIA	EUSKAL HERRIKO BASOA ----- PERTSONAIA- REN IZENA	HAURRAREN NEGAR- ZOTINAK ----- IRABAZIAK	
JOKAMOLDEA ----- ZILARRAREN IKURRA					GIPUZKOAKO HERRIA ----- EUSKAL JEINUA			
	EUSKAL HERRIA ----- BIENTZAKO TXIRRINGAK		ZUHAUR (AL- DERANTZIZ) ----- EDUKI- NEURRIA	ESAKA ----- JABE, JAUN				
DESESPER- RANTZA, ETSIMENDU ----- NORENTZAT ATZIZKIA						MINERAL MOTA ----- BAHETU		
		IZAERA, ESENTZIA ----- ERRATZ					IKUSI (LA- BURDURA) ----- NIGANA HURBILDU	
KEDAR ASKO DUENA	NUEN, HAIEI ----- EDATEKO EKINTZA			BURRUNTZI ----- SUTSU				GALERA, GALTZAPEN
					AR SORTZAI- LEAK ----- HALA ERE			
LETRA IZENA ----- EUSKAL MITOLOGIAKO IZAKIA		KAUSAZKO ----- GAROA, IRATZEA				BETEALDIA, OKADA ----- ZAKURRA		
			HIL DAITEKEENA ----- BIZKAIKO HERRIA				LITROA ----- MUSIKA NOTA (ALDERAN- TZIZ)	
ETENALDIA ----- LUGINA				DEUS ERE EZ ----- BAT ERROMA- TARRA				
						ERRAZ		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8	5				2		
	9					5		
	3		1			9		7
				2			7	
2				4		3		9
			7					6
		1			4	6		2
				1			3	
8	7		2		6	4		1

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Ufa eginez jaurtizen den aire.
2. Musika tresna.
3. Adineko gizona.
4. Soka.
5. Zuhaixa arantzatsuak.

EBAZPENAK

1	6	4	7	5	2	3	7	8
2	4	8	1	9	7	3	6	5
3	5	1	3	7	4	6	8	2
4	8	7	9	3	1	2	6	5
5	9	2	1	7	6	4	8	3
6	3	6	9	5	2	1	8	7
7	4	3	2	1	8	5	9	6
8	7	9	6	4	3	2	5	1
9	1	8	5	6	7	2	4	3

5XS

E	S	I	V	A	V	I	R	V	Z	V	K	E	N
I	T	R	I	T	V	E	R	T	R	V	L		
L	O	R	I	H	V	I	M	I	L	V	A		
V	A	K	O	L	V	S	U	K	A	D	E		
K	I	L	V	U	S	T	R	V	A	D	E	K	
N	E	R	E	G	N	E	I	N					
I	K	V	E	V	Z	I	L	V	Z	L			
V	A	M	V	E	I	P	I	S	L	E			
N	E	S	E	U	H	E	G	V					
I	T	V	O		V	L	O	R					
V	A	V	U		N	O	I	B					
M	I	V			M	V							

Itziar Castro

ANTZETZLEA ETA POETA



ANIZTASUNA ALDARRI

“Bartzelonatik 20 kilometrotara kokatzen den Fontpineda urbanizazioan hazi nintzen. Estoldarik gabeko baso batean. Vicky bikingoaren eta Pippi Kaltzaluzeren arteko nahasketa nintzen: txakur erraldoi batekin eta matxete batekin ibiltzen nintzen basoan etxolak eraikitzen. Gauzak asmatzen nituen eta bizikletarekin lasterketak egiten nituen. Kirol anitz egiten nuen haurtzaroan. Askatasun ikaragarria sentitzen nuen, baina momentu zailak ere bizitu nituen; 8 urte nituenean nire lagunik hoberena galdu nuen istripu batean. Haurtzaroa dualtasun horretan eman nuen, erabateko zoriontasunaren eta hutsune beltzenaren artean”.

“Garai batean bullyinga egin zidatenak nire fanak dira orain”

Aktorea, abeslaria, zuzendaria eta idazlea da Itziar Castro (Bartzelona, 1977). Batek baino gehiagok *Vis a vis* telesailean egindako antzezpenagatik ezagutu duen arren, antzerkian, telebistan, zineman, musikaletan eta kabaretean ibilbide luzea du. Goya sarietan emakumezko aktore berri onenaren sarian sailkatua izan zen *Campeones* eta *Pieles* filmengatik.

SAIOA BALEZTENA SENTIDO FOTOGRAFÍA & ITZIAR CASTRO

Txikia zinela bullyinga egin zizutela salatu izan duzu.

Bai, bullyinga egin zidaten nahiz eta liderra izan. Eskolako ordezkaria izan nintzen, adibidez, kontraesana dirudi, baina, hala da. Zaila izan zen niretzat. Izan ere eraso ez zidan haur bakar batek egin, baizik eta batek baino gehiagok. Eta horrek zailagoa egiten du dena. Tira, gaur egun garrantzitsuena da garai batean bullyinga egin zidatenak orain nire fanak direla, mina hazkundean eraldatu daitekeela ikasi dut.

Zein izan da biktima izatetik bizirik irauten duenera pasatzeko gakoa?

Nire amaren babesa. Bera beti egon da hor eta erakutsi dit ni desberdin sentiarazten ninduten arren, lanaren iraunkortasunarekin egin nahi nuen lortzeko gai nintzela. Eta urteak pasa diren heinean, nire erronkak ase ditut. Horrek ere mina bigarren maila batean kokatu du.

Arau heteronormatiboak betetzen ez ditugun emakumeon presioa garaitu duzu modu anitzetan. Bertzeen artean zure gorputzaren edertasuna biluziz.

Noski, beti sentitu izan bainaiz zorionsu nire gorputzarekin: nire gorputza biluzten dut ikaragarri gustu-

ko dudalako. Nudista naiz eta ez dut lotsarik. Eta, gainera, bide honetan topo egin dut nire gorputza arte bilakatu nahi izan duten artista zoragarri anitzekin. Egia erran, horrek ahaldu sentiarazi nau.

Zenbateraino da garrantzitsua aniztasuna ikusaraztea?

Ezinbertzekoa da. Izan ere, gure ingurura begiratzen badugu denok gara desberdinak. Pertsonak, animaliak, natura... Naturalena da desberdin izatea. Gertatzen dena da azken hamarkadetan, batez ere, kontrol eta presio handia sentitzen dugula, batez ere emakumeok, arau berdina betetzeko.

Antzezle lana bereziki zorrotza da zentzu horretan. Ateren bat itxi dizuten sentsazioa duzu?

Erranen nuke antzezpena bizitzaren erakuslehoia dela eta, gero eta gehiago, fisiko, etnia eta estilo aniztasuna nagusi dela. Apustu hori egiten duten zuzendariak saritzen direla erranen nuke. Gertatzen dena da, betikoa, zuzendariaren arabera arreta gehiago edo gutxiago jartzen diotela horri. Tira, ez dut uste aterik itxi zaidanik, pertsonaia desberdinak eta interesgarriak gorputzeko aukera izan dut beti. Agian pertsonaia gutxiago daude, baina konpetentzia ere, txikiago da.

Noiz eta nola murgildu zinen interpretazioaren munduan?

Hiru urterekin dantzatzen hasi nintzen. Nire bizilagunak herriko haurrentzat dantza saioak egiten zituen asteburuetan eta ni harekin hasi nintzen. Ondoren ikastaro amateur anitz egin nituen; dantza, kanta, antzerkia... Hamazazpi urte bete nituenean Bartzelonako Memory eskola ireki zuten, Espainiako antzerki musikala sustatzen zuen lehen eskola. Berehala apuntatu nintzen. Ordurako pare bat figurazio ere eginak nituen telebistan eta hogeitaz sinatu nuen lehen kontratua, *Peter Pan* musikalean. Bertan hasi zen dena.

Zer da antzezpena zuretzat?

Bizitzeko eta sentitzeko modua. Geldiezina naiz eta betidanik dena egin nahi izan dut, dena izan nahi nuen: tenis jokalaria, zientzialaria, abokatua, eta, baita hiltzailea ere, irrika. Antzezpenak aukera eman dit hori dena izateko, hein batean.

Idazlea ere bazara. Noiztik?

Poesia betidanik idatzi dut. Badago bere bizitza liburuxka batean idazten duenik. Nik berdina egiten dut poesiaren eta abestien bitartez. Edonon idazten dut, mugikorrarekin, eta, denak inspiratzen

nau. Azken hogeitaz urteetan idatzi dut eta orain arte ez nuen ezer publikatu. Ezinbertzekoa zaidalako idazten dut: nire sentimenduak konpartitzeko beharra sentitzen dut eta nire liburua autobiografia emozionala da.

Martxoan publikatu zenuen *Con el corazón por delante* poesia liburua. Oraindik irakurri ez duenak zergatik egin beharko luke?

Bertan nire arimaren zatitxo bat utzi dudalako irakurleei oparitzeko. Niri buruz ezezaguna den bertze ikuspegi bat aurkituko dute bertan. Liburu hau amodioaz eta desamodioaz solastatzen da, baina, ez bikote edo amorantez bakarrik; lanaren, inspiratzen nauen jendearen eta familiaren amodio eta desamodioaz. Eta batez ere, nitaz. Uste dut edonork egiten duela bat horrekin.

Nolako harrera izan du liburuak?

Egia erran irakurri duen jendeak gauza politak erran dizkit. Baita Espido Freire gisako ospea duten idazleek ere. Zorionekoa naiz, gainera, Marwal eta Elvira Sastrek babestu nautelako eta era berean txikia sentitzen naiz. Liburu honetan biltzen dudana hain intimoa eta pertsonala da, jendearen eskuetara iritsi eta hainen gau-

za politak entzuteak erabat hunkitzen nauela.

Antzerkia, zinema, telebista, musikalak, burleskea, zirkua... denetik egin duzu. Zeinetan sentitzen zara erosoago?

Denetan. Lana egitea, ikastea eta konpartitzea maite dut. Eta horiek denak behar ditut zoriontsu izateko.

Amaitzeko, zein proiektu dituzu orain eskuartean?

Liburuaren promozioarekin jarraitzeaz aparte, 2022an Netflixen estreinatuko den *Érase una vez pero ya no* telesail musikalaren estreinaldiaren zain nago. Ramón Carok zuzendu du eta Sebastián Yatra, Daniela Vega, Rosi de Palma eta Asier Etxeandia daude, bertzeen artean. Bertzalde, hainbat antzezlan, telesail eta pelikula ditut eskuartean. ●





Realeko eta Athleticeko zale banak 23 egun jarraian daramatzate eztabaidan, *El Correo*-k eta *DV*-k babestuta



Urriaren 31n Anoeta estadioaren kanpoaldean elkartu eta hantxe daude ordutik Pello Alustiza tolosarra eta Miren Lertxundi durangarra, elkarrekin sesioan, batak besteari demostratu nahian ez direla bata besteari begira bizi. “Ez zarela niri begira bizi!? Zertan ari zara ba orain, niri begira ez bada?”, bota dio batak besteari, serio demonio. “Niri begira bizi ez zarela!? Orain zertan ari zara ba, ez bada niri begira?”, ihardetsi besteak, demonio serio. Iluntze partean, ezarriak lehor, Twitterren jarraitzen dute eztabaidan. Perfileko

argazkian, biek ala biek dute euren talde kuttunaren armarrria, eta aurkezpen moduan, “Maite ditut zinema, ilunabarrak eta Realak” Alustizak, “Maite ditut musika, egunsentiak eta Athletic” Lertxundik. Sare sozialetan bereziki aritzen dira harrobiko jokalariez, baina ez norbere taldekoez. Eztabaida patrozinatzen ari diren *Diario Vasco* eta *El Correo*k jakinarazi dute Oyarzabal eta Simón elkar besarkatuta ageri diren posterra banatuko duela datorren asteburuan, “Gorriak denok batzen gaituela erakusteko”.

Monsinore Munillaren bildotsaren erakusketa



SAREAN ARRANTZATUA

Paco, kasu, jendea begira dago!



GALLINA VASCA EUSKAL OILOA | FACEBOOK

Goizeko kafesne sozialdemo hori



MADARI KATUA | FACEBOOK

ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Burujabe garenez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS · 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik
08:00etatik **15:00**etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

MONDRAGON

Pertsonak elkarlanean

Industria, Finantzak, Banaketa eta Ezagutza dira Korporazio sendo eta dibertsifikatu egiten duten oinarriak.

Merkatu desberdinetan marka liderrak ditu: Laboral Kutxa, Copreci, Danobatgroup, Eroski, Fagor, Maier, Orkli, Orona, Ulma, LKS eta Orbea besteak beste.

Enpresa jardueraz gain, gestio demokratiko propiodun sistema baten bidez garatzen da, eta inguruko gizartean konprometituta dago.

Kultura, ohitura eta hezkuntza babestea da betidanik Korporazioaren ezaugarririk aipagarriena.

www.mondragon-corporation.com



GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

MONDRAGON